

TOKIKOM

2017ko maiatza | 170. zenbakia

aiKor!

txorierriko aldizkaria

MINTZA EGUNA
2017ko ekainaren 3an, DERION



LAGATZU EGUNA EUSKAL JAIA 2017

Ekainak 24 zapatua



Bezperan

Ekainak 23 barikua

22:00etan

MUSIKA KALEAN

Fernan eta Natxo tabernen artean



YOGURINHA BOROVA

Trabesti euskaldunaren
SHOWa

10:45 LAGATZU XTREME LEHIAKETA
JOSEINA ETXEBERRIAk aurkeztuta
Agirre Lehendakaria plazan

13:00 MANNEQUIN
CHALLENGE
Agirre Leh.
plazan

13:15 KALE-JIRA-BIRA
DANTZA-POTEOA
BERTOKO, KANTARELUX,
BERTSOLARIAK, HIRU BAT eta GAZTE ALAI

15:00 HERRI BAZKARIA, Kultura etxean
15€ nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai.
Azken eguna ekainaren 20a, martitzena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARIAgaz,
UMEEN JOKUAK "Industriaren kirol parkea +
Xake jolasa" KULKI

20:00 ERROMERIA, TRIKIZIO taldeagaz Kultura Etxean



Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea be
euki dogu



Animatu eta parte
hartu koadrileagaz
Jantzi zaitetz antzinako
euskal erropakaz!

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Helena Caballero, *La Basu*
-  **12** Gurean izan da... Ainhoa Etxaide, sindikalista
-  **14** Gaztea eta... Peio Mendizabal, irakaslea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Mintza Eguna
-  **22** San Joan Sondikako jaiak
-  **25** Kukuke antzerki eskola
-  **26** Zamudioko Pazko jaiak
-  **30** Publierreportajea... Muji tailerra
-  **32** Osasuna... Nerea Izurieta, yoga irakaslea
-  **34** Teknologia... Lehen hitza euskaraz
-  **35** Aikorrizketa... Herria euskal bihurtzeko
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 San Joan Sondikako jaiak



26 Zamudioko Pazko jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekilili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Maitane Apodaka, Belen Gana, Xabier
Díaz, Itsasne Zubiri, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Oihana
Astobieta, Itallen bertso eskola, Ana Apika eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Cassini Grand finale

Hoge urte igaro dira jadanik Cassini espazio-ontzia Lurretik irten zenetik, Saturno eta bere eratzun-sistema ikertzeko helburuarekin. 2004. urtean heldu zen, zazpi urteko bidaia espaziala egin ondoren. Dagoeneko hasi berri du bere misioaren amaiera bikaina, "Grand finale" deiturikoa. Hurrengo bost hilabeteotan, Saturnoren eratzunen artean sartuko da 22 orbita eginez eta irailaren 15ean planetaren atmosferaren barrura murgilduko da betiko desagertuz.

Alde batetik, aipatu behar da Planeten ikerketako misioen artean arrakastatsuen izan dela, beharbada. Printzipioz lau urteko misioa izan behar zen, 2008. urtera arte, baina Cassiniren funtzionamendu apartagatik, NASAk misioaren luzapena egitea erabaki zuen. Misio honen arrakasta nabarmenen artean, 2005ean ESAko

Huygens zunda Titan satelitean lurreratzeari izan zen, baita Saturnoren Encedalo satelitearen gainazalaren azpian urezko itsaso bat aurkitzea ere. Horrek Lurretik kanpo bizitza egon daitekeela frogatu dezake, ura egoera likidoan egotea beharrezkoa delako bizitza agertu ahal izateko. Aurkikuntzek Cassiniren "hilketa" aurreratua ekarriko du planetaren kontra zuzenduko dutelako. Modu horretan, Saturnoren sateliteak zundak eduki ditzaketen mikroorganismoetatik babesturik egongo dira.

Beste alde batetik, bat baino gehiago egongo zarete zeuen buruari galdezka: "Eta zertarako nahi dugu Saturnora joan?, zergatik ez da dirutza hori Lurreko txirotasuna murrizteko erabiltzen, adibidez?". Galdera logikoak izan daitezke, baina soilik datu batzuk eman nahi ditut gai honi buruz. Esaterako, Cassini-Huygens misioa europarrei 500 milioi euro kostatu zaigu, gutxi gorabehera 0.6 euro pertsonako.



JON LEGARRETA
(Fisika Zientzietan doktorea)

Are gehiago, harrigarria bada ere, Europar Espazial Agentziari Estatuak emandako euro bakoitzetik, Estatuak industria espazialak gizarteari 3.5 euro bueltatzen dizkio, % 350eko etekina! Beraz, argi dago ekonomikoki eta sozialki oso errentagarria dela, baina horrezaz aparte badago arrazoi gizatiar garrantzitsuago bat neure ustez: gizakiaren etengabeko jakin nahia.

Duela gutxi ohartu naiz pertsona batzuk amets-harrapatzaile izena ematen diegun objektu etnikoen antzekoak direla. Ez nabil beraien ametsen atzetik doazen pertsonen edo inoiz amore ematen ez dutenei buruz hitz egiten. Denaren atzean dauden pertsonen buruz. Isilik eta ia ezkutatu leioaren ertzean daudenei buruz ari naiz. Ez dira ezer, baina aldi berean dena dira. Ertz batean mantentzen dira, izkinan, baina ez zaie axola. Badakite zu zeruraino eramaten, baita zu zeu zure hegoez fidatzen ez zarenean ere.

Pertsona hauek zauri sendatzaileak ere badira. Ehiztari amorratuek sortutako

Dena direnentzat, ezer izan gabe



MAITANE APODAKA
(Irakasle-eskolako ikaslea)

zauriak sendatzen dituzte, zure askatasunarekin jeloskor izan ondoren jaurtitako balek egindako mina gutxitzen dute. Amets-harrapatzaileak desberdinak izan daitezke, baina bat aurkitzean horrelakoa dela jakingo duzu. Eta zorte hori baldin baduzu, ez ezazu inoiz leio ertzean alde batera utzi. Pertsona horiek zure eguzki izpiak ikusteaz gain, euri tantak zein trumoi ilunak ere ikusiko dituztelako, zu (eta zure ametsak) bertan ez hondoratzeke indar guztiak jarriko dituzte. Eta hori... ez du edonork egiten.

HERBAGITEGIA
URDARITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrak esko etortzeagaitik

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MARMOLGINTZA
GOYO

SUPRALDE-GAINEKOAK OSBAN HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

Derio bizipoztu egingo da irailean

Maiatzean Bizipozaren jaia aurkeztu zen Txorierriko Baserri Antzokian. Jaia irailaren 17an egingo da Derion eta aurkezpenean hauek izan ziren: Esther Apraiz Derioko alkatea, Joxe Mari Agirretxe Porrotx, Leire Elizegi Bizipoza elkarte-kidea, eta Luisma Landaluze Gure Señeak Derioko elkarteko kidea.

Bizipoza elkarteak izaera bereziko Euskal Herriko 33 elkartek osatzen dute, eta jaiak horien lana erakutsi eta gizartearatzea du helburu. Elkarrean artean daude, banaka batzuk aipatzearen, Sanfilippo Umeen Euskal Elkarte, Aspanovas Bizkaia, minbizia duten umeen gurasoen elkarte, Chrysallis Euskal Herria, adinga-

be transexualen familien elkarte, eta Kale Dor Kayiko, ijito kultur elkarte; baita Derioko Gure Señeak ere.

Aurkezpenean azaldu zuten, irailaren 17an hainbat ekitaldi egongo dira Derion, hala nola, elkarrean arteko harremanak indartzeko ekintzak, umeentzako tailerrak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizuna, Irrien lagunak taldearen ekitaldia, eta herri bazkaria. Gainera, elkarte bakoitzak bere standu edukiko du. Nolanahi ere, jaiaren parte hartzeko deia luzatu diete Derioko eta Txorierriko taldeei eta norbanakoei, eurek ere jaiari ekarpena egin diezaioten eta denen artean egun osoko egitaraua osatzeko. Hala,

nahi dutenak antolatzaileekin ipin daitezke harremanetan helbide elektronikoko honetara idatzita: itsaso@bizipoza.eus. Izan ere, auzolana bizipoza jaiaren ardatz nagusienetarikoa bat da. Beste batzuk euskara, balioen transmisioa eta bizipoza bera dira.

Bizipozaren jaiak Usurbilen eta Tolosan egin dira aurretik, eta horietan batez beste 5.000 lagun batu dira. Hain tamaina handiko ekintza Derion antolatzea erronka ederra da eta Gure Señeak elkartekoek "ilusioz eta beldur apur batekin" helduko diote hari. "Baina hemen gaude, eta gogotsu. Bizipozaren barruan gauden elkarteok egoera zaila dugu, baina alde positiboa ikusi ahal izatea eta hori balio berberak dituzten beste elkarte batzuekin partekatzea oso pozgarria da".

Bizipoza elkarteak Irrien lagunak klubetik sortu zen. Klub hori Katxiporreta pailazo taldeak, Elkar argitaletxeak eta Berria egunkariak sortu zuten, eta Euskal Herriko umeei eta beren familiei zuzendutako komunikazio eta harreman-esparru estrategikoa da, batez ere ikuspegi hezitzailea duena. Joxe Mari Agirretxek aipatu zuen moduan, beren ibilbidean errealitate ezberdina duten umeak eta familiak ezagutu dituzte, eta horrek bultzatu zituen haratago joan eta Bizipoza, elkarrean elkarte, sortzera. Elkarrean solidaritatea du oinarri; eta mundu hobe bat sortzea helburu, guztiok lekua dugun mundu bat, hain zuzen ere. Beraien leloak dionez, munduak guztiarentzat behar luke.



Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

BIZKARGI
TABERNA ETA JAMARIA
Urkiola, 6 DERIO 944541655

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
-Especialitate guztiak zeritro bakar botaan
-Aurrekontua doan
-Especialitatea: umeak
Urbe 7, behean
48160 DERIO (Bizkaia)

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behean Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

**San Tomas,
Zamudion****Ekainak 16, barikua**

- 18:00: Bolandera danbadak, jaiak iragarritz.
- 20:00: Idi proba erakustaldia.
- 22:00: Sardinak, solomoa eta hirugiharra.
- 22:30: Erromeria NAKARegaz.

Ekainak 17, zapatua

- 14:00: Euskal erromeria.
- 16:00: XXV. mus-arin txapelketa.
- 17:30: Umeentzako jolasak.
- 18:00: Tortilla txapelketa (umeak eta nagusiak).
- 21:00: Tortillak aurkezpena.
- 21:30: Sariak bananduko dira.
- 23:00: DISKODANTZA Dja.
- 24:30: Jolas dibertigarriak. Jarraian DISKODANTZA Dja.

Ekainak 18, domeka

- 09:00: Zamudioko bost ermiten ibilbidearen XIXI. irteera San Tomas ermitatik.
- Goiza Bertoko taldeak girotua.
- Paella eta sukalki txapelketak.
- 13:00: Meza ermitan.
- 14:00: Paella eta sukalki kazolak aurkeztuko dira.
- 18:00: Euskal dantzen agerraldia Zamudioko Hiru-bat taldearekin. Ostean, paella eta sukalki txapelketen sariak banatzea.
- 19:00: Txapelketa: gazta harripatzea.
- 19:30: Erromeria: Trikileku.

Ekainak 19, astelehena

- 12:00: Meza ermitan, azuko defuntuen oroimenez.

Gurea, euskara!

Urtero legez, Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Euskal Astea antolatzen du maiatzean, "Zamudion geurea, euskara" lelopean. Hitzordua finkatuta dago herriko egutegian eta asko izan dira ekitaldiarekin bat egiten duten zamudiozarrak. Aurten ere ez da salbuespena izan. "Pozik gaude egindako ekintzekin eta jendearen erantzunarekin. Gure helbu-

rua, betiko moduan, herritik euskara zabaltzea da", esan dute antolatzaileek.

Ekitaldirik jendetsuena, aurrekoetan bezala, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoena izan zen. Pailazoen Tipi-tapa, korrika ikuskizuna taularatu zuten kiroldegian. "Guztira 700 lagun batu ginen bertan, eta bai ikuskizunak berak, bai eszenatokitik kanpo Pirritxek-eta adieraz-

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gabi-ikuziak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko gabi-ikuziak
Dulegoak eta lokalak
Ostia amaierako garbiketak
Basturak
Zabur hitana

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 Iorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 90 Mungialde etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jerri izaguz Facebook-en

ten dituzten jarrerak liluratu gintuzten nagusiok zein umeak. Txapela kentzeko modukoa da”.

Itsaso Arrieta lezamarrak kanta-ikas-tarua eskaini zuen, eta musikaren haritik, antolatzaileek batez ere azpimarratu dute Marie Irigoien eta Pantxix Bidart Lapurdiko abeslariak emandako kontzertua. “Oso polita eta hunkigarria izan zen. Abeslariak mikrofonorik gabe abestu zuten eta, horren ondorioz, oso giro polita sortu zen Zamudiotarren. Kantariak ez dira oso ezagunak, baina oso onak iruditu zitzaizkigun. Aspaldi honetan egin dugun kontzerturik onenetariko bat izan da, zalantzarik gabe”.

Arroeta mendi taldearekin batera egindako ibilbidea ere aipagarria da. “Bizkargira joan ginen, Bizkargi Egunean, hain zuzen ere. Oso mendi esanguratsua da hainbat arrazoigatik: bere kokapenagatik, Bizkai erdian dago; 36ko Gerran Burdin Hesiak eduki zuen paperagatik eta han egon ziren batailengatik... Txorierr mailan garrantzitsua da. Guk hiru ordu eta erdiko ibilaldia egin genuen; gogorra, baina oso polita”. Bestetik, herria ezagutzeko ibilaldia ere antolatu zen umeentzat, eta Arbolantxa elkarteak erakustaldia eskaini zuen. Era berean, *Igelak* pelikula eman zen.

Lagatzuk euskararen aldeko ekintzak egiten jarraituko du, eta ekaineko azken zapatarako Lagatzu Eguna antolatu dute. Egun horretan *Xtreme* lehiaketa, *Mannequin Challenge* eta herri bazkaria egingo dituzte, besteak beste.

Hirix aplikazioa: Larrabetzuko Udala eta herritarrek, hurbilago

Larrabetzuko Udalak Hirix saketako telefonorako aplikazioa jarri du herritarren eskura. Horrek komunikazioa eta herritarren parte-hartzea sustatzea du helburu. “Udala herritarrengana hurbildu nahi dugu eta, era berean, larrabetzuarrei erraztasuna eman, Udalarekin harremanetan jartzeko. Azken batean, gaur ia edonork dauka telefono mugikorra eta hori baino ez da behar aplikazioa erabiltzeko”, esan digu Iñigo Gaztelu herriko alkateak.

Derion eta Lezaman, esate baterako, aspaldian jarri zuten martxan antzeko aplikazio bat, Udala Zabalitzen. Hori Bizkaiko Foru Aldundiko BiscayTIK Fundazioak eskaintzen die doan Udalei. Hala ere, Larrabetzuko Udalak 52,90 euro gastatu du, Hirix aplikazioak “zerbitzu gehiago eskaintzen dituelako”. Hau da, Udaleko webgunea irakurtzeko eta Udalarri gertakari berri emateaz gainera, Hirix aplikazioak besteak beste aholkuak, inkestak eta kontsultak egiteko aukera eskaintzen du. Era berean, erabiltzaileak Udalarekin ez



ezik, herriko beste eragileekin (elkar-teak, dendak, Mankomunitatea...) ere jarri ahal dira harremanetan.

Alkateak esan duenaren arabera, erraza da aplikazioa erabiltzea. “Lea-Artibaiko Udala batzuek erabiltzen dute Hirix aplikazioa, baita Etxebarriko Udala ere. Erabiltzaileen artean sarea osatzen da, informazioa elkartrukatzeko”. Larrabetzuko Udala duela aste batzuk hasi zen Hirix eskaintzen eta orain arte 100 larrabetzuarrek erabiltzen dute aplikazioa.

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak
clinica dental ZAINDUZ hertz klinika
Txorierr elorbidea, 9 - Lorja | Artaaga enakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzaindus.com | www.dentalzaindus.com

SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserrako ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Pelukeria ESTERKA
GOLZALDE
94 455 81 44
Anguñeri 2. behea Larrabetzu-Bizkaia

Manel Fuentes, Loiuko jaietan

Udaletik aurreratu duten moduan, Manel Fuentes and The Spring's Team-ek Loiuko jaietan joko du aurten. Katalanak eta bere taldeak Bruce Springsteen-en abes-tien bertsiok egiten dituzte. Horrezaz gainera, Kepa Junkera, Kaotiko, Trixixio, Luhartz eta Dj Ibai igoko dira Loiuko eszenatokira.

XIX. Xake Opena

"Isidro Deuna" Nazioarteko Xake Opena Derio Xake Taldeak antolatu du ekainaren 3rako. Txapelketa 9:30etik 14:00etara izango da Kultur Birikan. Openaren joko-sistema suitzarra da eta zazpi txandatan jokatu-ko da. Guztira, 27 sari banatuko dira eta irabazleak 400 euro eta txapela jasoko ditu. Izena ematea www.derioxaketaldea.wordpress.com webgunearen bidez egin daiteke; derioxaketaldea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita; edo 688688183 telefono zenbakira whatsapp bat bidalita. Datu hauek zehaztu beharko dira: izen-abizenak, herria, kluba, adina eta elo (fide-feda-fva). Izena emateak 10 euro balio du eta doan izango da Elo fide > 2300 kategoriakoentzat.

Lezamako txakolin Eguna

Ekainaren 4an egingo da 11:00etatik aurrera, Udaletxeko plazan. Kurutze dantza taldea kalejiran aterako da 11:30ean, eta gero dantzaldia eskainiko du frontoian. Lezama Saretzen elkartearen eskutik, hanburgesa txikiak dastatzeko aukera egongo da 12:30ean. Azokari 13:00etan emango zaio hasiera ofiziala. Kortxoia atera, brindisa egin eta Lezamako txakolinaren enbaxadore izendatuko dute Asier Dañobeitia sommelierra 2017. urterako. Ostean, oroitzapenezko plaka emango diote Erdikoetxe txakolinari, eta omenalditxoia egingo diote Ciriaco Dañobeitia txakolingileari. Larrabetzuko ia hil zen. Jarraian, kantaldia egongo da Ekidazu eta Zumaiako Beheko Plaza abesbatze-kin. Goizean zehar umeentzako tailerrak eta puzgarriak izango dira eta, ohikoa den moduan, bertoko produktuak ipiniko dira salgai.



Garmitxa, Inperioaren kontra

a: Idoia Andres

Garmitxa elkartearen aldeko martxa maiatzean egin da Larrabetzun. Aurten, lehendabiziko aldiz, Spanish Garrison 501. legioko kideek egin dute bat ekitaldiarekin. Hori costuming klub bat da eta hiru oinarri ditu: *Star Wars* sagarako zale-tasuna bultzatzea, sagaren jantziak ikusgai ipintzea eta egitasmo solidarioetan parte hartzea. Haiei buruz esaten da "gauza onak egiten dituzten neska-mutil gaiztoak" direla. Larrabetzura hurbildu zirenek *Star Wars* pelikuletako pertsonaiekin argazkiak atera ahal izan zituzten.

"Oso pozik gaude jendeak emandako erantzunarekin. Egun horretan beste ekintza batzuk egon arren, 200 lagun baino gehiago etorri ziren gurera. *Star Wars* sagaren lagunekin ere ibili ginen oso gustura, eta etorkizunean harremanetan jarraituko dugu", adierazi dute antolatzaileek. Eguraldia ere zoragarria izan zen eta hari esker, martxa bera eta gainontzeko ekintzak arrakastatsuak izan ziren, antolatzaileren esanetan. "Bereziki larrabetzuarrei eman nahi dizkiegu eskerrak, betiko moduan izugarriko laguntza eman digutelako eta elkartasun handia adierazi digutelako".

Aurten, Burgoseko kide berri bat sartu da Garmitxa elkartean, eta martxan elkar ezagutzeko aukera izan zuten. "Erabat pozgarria izan zen, senideei babesa eskaini genielako. Garmitxa gaixoei eta



familiei laguntzeko sortu genuen, eta inor bakarrik ez sentitzeko". Martxa amaitu zenean, parte-hartzaileek pintxo gozo bana jaso zuten indarrak berritzeko. Umeentzako puzgarriak ere egon ziren. Bestetik, Barakaldoko Aitzolek ere ekarpena egin zion martxari, eta egun bi lehengo *Askatu barrukoa* txotxongilo saioa eskaini zuen Anguleri kultur etxean.

Martxan, izena ematearen bidez lortutako dirua Garmitxa elkarteko umeek jasaten duten gaixotasuna ikertzera bideratuko da. Ume horiek gaixotasun arraro bat dute eta ezin dute ohiko elikagairik hartu, euren organismoan eragin oso kaltegarria dutelako.

Filma *Nur eta herensugearen tenplua* da. Hori Juanba Berasategik zuzendutako azken proiektua da eta ekainaren 2an estreinatuko da Euskal Herriko zinema aretoetan. Animazio-filma da eta Toti Martinez de Lezearen izen bereko liburuan dago oinarrituta. "Poz-pozik nago", esan digu Larrabetzuko idazleak. Hala ere, estreinaldia gazi-goza izango da Berasategi duela gutxi hil delako. "Oso triste da; omenaldi bihurtuko da".

Azaldutakoaren arabera, proiektua orain dela urte bi hasi zen mamitzen. "Ipuin hori aukeratu zuen, kolore asko erabiltzeko aukera ematen ziolako. Eta hori oso erakargarria da marrazkilaria barentzat. Izan ere, istorioa Txinako jolasparke batean gertatzen da eta hainbat herrialdetako umeak azaltzen dira bertan".

Totik pelikularen zati batzuk ikusi ditu eta aipatu digu izango duen harreraren zain dagoela. "Ikusmin handia dago, marrazki bizidunak egitea oso prozesu luzea delako, eta garestia. Ea zer gertatzen den!". Argumentuari dagokionez, liburuan agertzen ez diren pasadizoak gehitu

Toti Martinez de Lezearen liburu bat zinemara eramán dute



dituztela esan digu, "liburukoarekin ez zelako nahikoa, ordubeteko pelikula egiteko". Filma euskaraz estreinatuko da Euskal Herrian, eta gaztelaniaz, Estatuan.

Nur bilduma oso arrakastatsua da gaztetxoek artean, eta maiatzean argitaratu da bildumako azken liburua: *Nur eta*

Irlandara bidaia. "Bildumaren hamahirugarren liburua da eta, egia esan, ez nuen Nurren abenturei buruz gehiago idazteko asmorik. Baina ikastetxeetara noanean, azoketara... berari buruz galdetzen didate gaztetxoek, eta beno... jarraitu behar ko da!".



HIRIX



LARRABETZU

Hirix

Larrabetzu zure eskuetan!

Jaitsi ezazu

App Store Google play

Hirix zure appstore-n duzu eskuragarri. Larrabetzuko parte aktiboa izan. Anima zaituz Larrabetzu hobeto bat erakitzen.

- Azken berri eta abisuak
- Ekitaldi guztiak
- Intzidentziak, iradokizunak eta kontsultak
- Galdeketak
- Hiriari buruzko informazioa

Larrabetzu
Udala

Facebook Larrabetzu: <https://www.facebook.com/larrabetzua>
Twitter Larrabetzu: <https://twitter.com/larrabetzuaudala>
Hirix web: www.hirixapp.com

Burdin Hesian izandako borrokak, Larrabetzuren oroimenean

Laurogei urte bete dira armada frankistak Burdin Hesiari egin ziola eraso, Bilbo, garai hartan Errepublikaren Euskadiko hiriburua zena, hartzeko. 1937ko ekainaren 11n, 12an eta 13an borrokak izan ziren eta "Larrabetzu 1937-2017" herri batzordeak ekintza sorta zabala antolatu du maiatzean eta ekainean, efemeridea eta borrokak gogora ekartzeko. Oroimen ekitaldiek Udalaren babesa ere badute.

Besteak beste, "Emakumeak eta Gerra Zibila" zine ziklo bat eskaini dute maiatzean, eta gazteei zuzendutako hitzaldia. Ekainerako egitarau betea antolatu dute, hala nola lubakiak berregitea, abesti eta ereserkien entzunaldi-kontzertuak, ibilaldiak, laburmetrai eta dokumentalen emanaldiak eta erakusketak. Horren haritik, aipatu beharra dago azken bi urteotan Karraderan elkarreak Burdin Hesiko lubakietako garbiketa lanetan topatutako materiala ikusgai ipiniko dela. Era berean, aipamena merezi du eskolako neska-mutikoen 1:2 eskalan egindako Picassoren "Guernica" koadroaren argazki erreproduktzioak. Hori herriko plazan egongo da ikusgai udako hilabeteetan.

Ekainerako prestatutako ondoan duzue:

Ekainak 2, barikua

-19:30: "Azken batailoia" argazki erakusketaren aurkezpena, Mauro Saraviaren eskutik. Anguleri kultur etxean.

-20:00: *El último día del Cinturón de Hierro, El batallón disciplinario eta Cartas de guerra* laburmetraiak. Hizlariak: Julen Lezamiz eta Aritzeder Arregi. Anguleri kultur etxean.

Ekainak 8, eguena

-19:30: "Euskal emakumeak Gerra Zibilean. Cecilia García de Guilarte, gerrako erreportaria" hitzaldia, Ana Urrutia EHUko irakaslearen eskutik. Anguleri kultur etxean.

Ekainak 9, barikua

-19:30: *Baile en el sindicato* luzemetraia, Julen Lezamizekin. Anguleri kultur etxean.

Ekainak 10, zapatua

-10:30: Anguleri - Pikene - Serra - Bolunburu ibilbidea.

-Berregitea: lubaki bizia. Parte hartzaileak: Euskadiko Fronteak, Lubakikoak eta Berangoko Burdin Hesien Museoa.

Ekainak 11, domeka

-12:00: Udalaren adierazpena, Udaltxean. Herritarrekin askatasunari gorazarrea. Parte hartzaileak: txitulariak / trikitalariak, Gaztelumendi abesbatza, Bizkargi



dantza taldea eta Taberna Ibiltaria. Herriko plazan / Anguleri plazan.

-13:00: Asturiar milizianoei omenaldia, Bolunburun.

Ekainak 12, astelehena

-19:30: *Entierro del P. Korta, Semana Santa en Bilbao*, Frankisten sarrera Larrabetzun eta Guernika dokumentalak. Hizlaria: Iñaki Berazategi. Anguleri kultur etxean.

Ekainak 13, martitzena

-19:30: Musika entzunaldia, Gaztelumendi abesbatzaren eskutik. Elexaldeko elizan.

Ekainak 16, barikua

-19:30: "Ertzain igiletua" hitzaldia. Hizlaria: Aitor Miñambres, Berangoko Burdin Hesien museoaren zuzendaria. Anguleri kultur etxean.

Ekainak 17, zapatua

-20:00: Gerrako bertsoak, Itallen Bertso Eskolaren eskutik; eta musika entzunaldia, Larrabetzuko Rocker-ekin. Anguleri kultur etxean.

Ekainak 18, domeka

-11:00: Eskolako ume, guraso eta herritarrei zuzendutako ibilbidea, Bolunburu ingurutik. Plazan.

Ekainaren 2tik 18ra

-11:00 -13:00 eta 18:00 - 20:00: "Azken batailoia" argazki erakusketa, Manu Saravia argazkilariaren eskutik. Anguleri kultur etxean.

Ekainaren 8tik 18ra

-11:00-13:00 eta 18:00-20:00: "Burdin Hesia" erakusketa, Karraderan elkarrearen eskutik. Anguleri kultur etxean.

Eskolan eta plazan

Eskolakoek egindako "Guernica" koadroaren argazki erreproduktzioa.





Helena Caballero, *La Basu* | Gerra-erregina

Duela 20 urte, lagun batek rap amerikarraren kasete bat oparitu zion Elenari, argazki-kamerara barik beste nonbaitera begira dagoenari. Bonbo eta kutxek guztiz txunditu zuten. Hor hasi zen bere ibilbidea, orduan gizonezkoen mundua zen horretan borrokari etsi gabe. Erdaraz hasi arren, laster igaro zen euskarara, eta bai euskaraz, bai erdaraz rapeatzen duen lehen emakumea dugu *La Basu*. Derioko San Isidro jaietan izan genuen *Ni Naiz Izotz Erregina* diskoko abesti batzuk aurreratzen.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Emakume ahots bat
mikrotik jo ta su
euskaraz rapeatzen.

Egiogun kasu!
Errimadun egiak
behin altu behin baxu.
Topikoak apurtuz
badator *La Basu*.

Itallen Bertso Eskola

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA



bai
euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskararizurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

RUBEN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lizenzia plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 34 40

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Aresti
Harategia
Urdaitegia



Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06



“Lantokietan dago sindikalismoaren benetako indarra”

AINHOA ETXAIDE |
LAB sindikatuaren idazkari nagusia

t/a: Gaizka Eguzkitza

Euskal Estatua izan da LAB sindikatuak Maiatzaren Lehenaren haritik zabaldu duen mezu nagusia. Zergatik behar dugu langileok gure Estatua?

Ez dugu eskatzen bakarrik gure naziotasuna ziurtatzeko, baizik eta gure herria hobeto eraikitzeko. Eta langileok hartu behar dugu parte prozesu horretan. Zergatik aurtzen? Estatus politikoaren inguruko eztabaida mahai gainean dagoelako, autogobernuaren ponentzia eskatu delako. Gure ustez, EAJK Legebiltzarrrera mugatu nahi du eztabaida. 1978an lapurtu egin ziguten eztabaida hori, eta 2018an gauza bera egiteko asmoa dagoela uste dugu.

Politikari batzuk kezkatzen dira sindikatuok politikaz hitz egiten duzuelako. Zer erantzun zenuke?

Guk pobrezia eta prekarizazioaren kontra borrokatzen dugu. Eta hori ez da arazo ekonomikoa, gaur egun dagoen aberastasunarekin guztiok ondo bizi ahal garelako. Beraz, arazoa politikoa da, hau da, sortzen den aberastasunarekin zer egin nork erabakitzen du? Politikari buruz hitz egiten dugu, bai horixe. Bizkaiko eta Euskal Enpresarien Konfederakuntzek

Maiatzaren Lehenaren haritik, Ainhoa Etxaidek LABek Txorierrin antolatutako ekintza batzuetan hartu zuen parte. AIKOR! aldizkariak aukera aprobetxatu zuen Etxaiderekin, besteak beste, sindikatuari eta gaur eguneko egoera sozio-politikoari buruz hitz egiteko. Etxaidek maiatzaren amaieran utzi du LABeko idazkaritza nagusia eta hau da eman duen azken elkarrizketetako bat.

(Cebek eta Confebask), behin eta berriro egiten dituzte aldarrikapen politikoak eta Eusko Jaurlaritzak horiei txalo egiten die. Guk politikari buruz hitz egiten dugu, gobernuak hartzen dituen erabaki guztiak patronalaren aldekoak direlako.

Krisia dela-eta, langileen baldintzak okerragoak dira. Maiatzaren Lehenaren bezalako egunak gero eta beharrezkoagoak dira, ezta?

Bai, baina erantzun kolektiboak ematea hori baino garrantzitsuagoa da. Eta hori da gaurko sistemak gehien zigortzen duena. Diskurtso ofizialaren arabera, sindikatuok ez dugu ezertarako balio. Argi dago alde bi daudela eta bakoitzaren interesek talka egiten dutela. Gaur egun, langileen mugimenduaren jatorrietara itzultzen gabiltza: gobernuak sistema

kapitalista indartzen du, eta horren kontra langileok egin ahal dugun gauza bakarra geu antolatzea da.

Batzuek leporatzen dizuete sindikatuoi gauza gutxi egin duzuela lan baldintzak hobetzeko...

Argi dugu krisia aprobetxatuta egin dituzten inposizioak ez ditugula gelditu. Baina zenbat gehiago lortuko zuten, sindikatuok hemen tartean egon ez bagina? Bestetik, sindikalismo mota asko dago. Haietako batek, gurea ez denak, aspaldian babesten ditu gobernuaren politikak. Euskal Herrian dugun gehiengo sindikalak, aldiz, karta soziala eskatzen du eta langileen mobilizazioan sinesten jarraitzen du. Sindikatuok ezin izan ditugu gehiegikeria batzuk gelditu, baina lortu dugu alternatiba bat ematea. Eta

*“Ez ditugu krisia
aprobetxatuta egindako
inposizioak gelditu;
baina zer gehiago
lortuko zuten, sindikatuok
egon ez bagina?”*

*“Politikari buruz hitz
egiten dugu, gobernuak
hartzen dituen erabaki
guztiak patronalaren
aldekoak direlako”*

hor dago euskal sindikalismoaren balioa: ez diogu gure ardurari uko egin eta ez dugu alternatiba bat eraikitzeke bidea baztertu. Eta ziur gaude bide horretatik, langileria erakartzea lortzen badugu, apurka-apurka egoera aldatu egingo dela.

Sindikatu bakoitza bere kabuz doa. Batera arituko bazinete, ez zinatekete indartsuagoak izango?

Bai, aurtengo Maiatzaren Lehenean, aurrekoen aldean, aurrerapausoa eman dugu zentzu horretan. LABek eta ELAK argi dugu elkarrekin indartsuagoak garela eta konpromiso hori zabaltzen gabiltza. Baina elkarlana lantokietan bilatu behar da, ez bakarrik zuzendaritza postuetan, hau da, 12.000 delegatuak gauza izan behar dira elkarlanean egiteko. Hori da elkarlan sindikala eraikitzeke zailtasunik handiena, hor dagoelako sindikalismoaren benetako indarra. Laster Kongresua izango dugu LABen eta han espero dut elkarlanaren aldeko erabakiak hartzea. Beste alde batetik, karta sozialaren bidez, mobilizazioak suspertzeko ahaleginak fruituak emango ditu.

Bizitza erdia, LABen

Ainhoa Etxaide (Hondarribia, 1972) 15 urte zituela sartu zen Ikasle Abertzaleak sindikatuan. “Garai hartan, 1990eko hamarkadan, lan krisia egon zen eta gazteok oso kritikoak ginen sindikatuarekin eta, noski, LABekin, gazteengandik urrun zeudelako: Aldi Baterako Laneko Enpresak nagusi ziren, gazteok % 50eko langabezi tasa genuen... Kritika horiek guztiak LABek jaso zituen 1996ko Batzordean eta izugarrizko autokritika egin zuen. Beraz, sindikalismoa kritikatzeko badugu eta eurek autokritikan oinarritutako eztabaida bat egiten badute, gu inplikatu beharko ginatke. Eta horrela sartu nintzen LABen”.

Etxaide emakumezko lehenengo idazkari nagusia izan da. “1996an LABeko idazkari nagusia emakumea izango zela erabaki zenean, benetan estrategikoa den bideari eman zitzaion hasiera. Batetik, zor historikoa dago emakume langileekin; eta, bestetik, sindikalismo berriak emakumea

aintzat hartu behar du. Duela gutxi Kuban egon naiz, Consejo Presidencial Mundialek egindako batzar batean. Guztira 92 ordezkari egon gara eta haietako bi baino ez emakumezkoak. LABeko afiliatuen % 35 baino gehiago emakumeak dira”.

Maiatzaren 25ean eta 26an, LAB sindikatuak Biltzar Nagusia egin zuen eta horretan Etxaidek idazkaritza nagusia utzi zuen. “Beste atal bat idatziti behar da eta hori talde berri batek egin behar du. Ardura nagusietan gaudenok jakin behar dugu noiz eman lekukoa. 2008an Rafa Diez ordezkatu genuen, sindikatu berritzeko asmoarekin, eta hori lortu dugu”.

Zortzi urte

Etxaidek zortzi urte eman ditu karguan, urte gogorak eta aldakorak. “Krisiak eztabaida egin du; kapitalari boterea eman zaio gure kontra; Euskal Herrian egoera politiko berri bat dugu; ezker abertzaleak estrategia aldatu du... Ur handietan itsasontzi hau gidatzea egokitu zaigu eta onik atera gara: inoizko ordezkari handiena dugu; Comisiones Obreras sindikatuari aurrea hartu diogu hemen; Nafarroan ari gara sendotzen; Ipar Euskal Herrian, CGT sindikatuaren kontrari sailatu arren, enpresa txikitara zabaldu gara; afiliazioa igo egin dugu...”

Etxaide sindikatuan geratuko da, zuzendaritzari laguntza ematen. “Berreskuratu nahi dut idazkari nagusia izan baino lehen nuen herriko dinamizketan parte-hartzeko aukera: auzoko jai-batzordean, presoaren aldeko taldean... Bizimodua aldatuko zait, baina jarraituko dut langileen borrokan parte hartzen”.



Alaia
fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Tallent, 5
48170 Zamudio
94 685 05 85

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

AMA
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Global Training programak nazioartean lan-praktikak egiteko aukera ematen die gazteei. Txorierrin Politeknika Ikastegiak kudeatzen ditu beka. Eta hara, hain zuzen ere, jo zuen Peio Mendizabal derioztarrak. Kanpoan lan egiteko gogo zuen eta beka horien bidez, zazpi hilabete eman zuen Pragan.

t: Gaizka Eguzkitza / a: P:M.

Zelan animatu zinen Global training beka bat eskatzera?

Kanpora joateko gogoia nuen. Gaztetan atzerrira joaten nintzen, batez ere ingelesa ikastera, eta bidaiak egitea ere gustatzen zait izugarri. Irlanda, Alemania, Kanada eta Ingalaterratik ibilia naiz. Esperientzia horiek oso onak izan ziren, pertsona moduan hazten lagundu egin zidatelako. Beraz, berriro egin nahi izan nuen. Informazioa Interneten bilatzen ibili nintzen eta Global training beka ezagutu nituen. Gainera, Politeknika Txorierriko beken arduraduna, Kepa Larrondo, nire laguna ere bada. Informazioa Politeknikan eman zidaten eta eskaera egin nuen.

Nora joan, baldintzak eta abarreko kontuak aukeratu ahal izan zenituen?

Ikasketaren arabera, eskaintza ezberdinak daude. Irakaskuntza arloan, hiru leku zeuden aukeran, Irlanda, Txekia eta Hungria. Nik argi nuen Praga nahi nuela eta, zorionez, hori eman zidaten. Horretarako, hainbat paper bete behar izan nituen, zuzeneko elkarrizketa egin... Bekek lana besterik ez dizute ematen, gainontzekoa zure kabuz lortu behar dituzu: etxea,

“Gaztetan atzerrira joaten nintzen, batez ere ingelesa ikastera eta bidaiak egitea ere gustatzen zait izugarri”



“Kanpoan hazi naiz”

PEIO MENDIZABAL | Global Training beken bekaduna

dirua antolatzea, bidaiak... Dena Interneten eta Facebooken bidez lortu nuen.

Nolako lana egin zenuen Txekian, Pragan?

Txekian 2014ko azarotik 2015eko apirilera bitartean egon nintzen, ingelezko ikastetxe batera. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen zituzten. Ni Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako klase batean ibili nintzen, tutoreari laguntza ematen. Umeekin egunero nenbilen harremanetan. Irakasle guztiak amerikarrak edo Ingalaterrakoak ziren.

Nolako balantzea egiten duzu?

Hasieran urduri eta apur bat bedurti, baina oro har oso esperientzia polita izan zen, bai horixe. Lan aldetik, beste errealitate bat ezagutzen duzulako. Batez ere lagundu dit esperientzia hartzen, klasea-

ren aurrean zelan jokatu, esate baterako. Eta pertsonalki, zure kabuz bizi izaten ikasten duzulako. Gainera, oso aberasgarria izan da mundu osoko lagunak egin ditudalako eta hainbat leku ezagutu ditudalako. Izan ere, Praga Europa erdian dago eta zenbait leku zoragarri oso hurbil daude: Viena, Polonia, Budapest...

Nolakoak dira hango hezkuntza eta bizimodua?

Hezkuntza, nahiko antzekoa, behintzat ezagutu nuena eskolan. Ordutegiak ere badira antzekoak eta normalean hemen egiten dudan errutina bertan ere egiten nuen: goizean, eskolan; arratsaldean, lana bukatutakoan, gimnasia joaten nintzen edo lagunekin futbol partidak jokatzen nituen; eta asteburuetan,

“Bekek lana besterik ez dizute ematen; gainontzekoa zure kabuz lortu behar dituzu: etxea, bidaiak...”

“Esperientzia oso aberasgarria izan da: mundu osoko lagunak egin ditut, hainbat leku ezagutu ditut...”



lagunekin, eta turismoa egiten. Praga oso hiri polita da, esaten den bezain polita. Eta bizitza hemen baino merkeagoa da: askotan entzuten da Pragan garagardoa ura baino merkeagoa dela eta hori egia da. Garraibideak ere badira merkeagoak eta horrek bidaiatzeko aukera handia ematen dizu. Topera aprobetxatu dut esperientzia.



Irakaslea, bokazioz

Peio 25 urteko mutil bat da, Deriokoa. Duela urte batzuk magisteritza karrera bukatu zuen, ingelezko espezialitatean. Gazteak bokazioz aukeratu zituen ikasketak. “Umeak betidanik gustatu zaizkit; gainera, ama ere irakaslea da, Zamudion, eta horrek eragin handia izan du niregan, karrera aukeratzeko orduan. Azkenik, lana polita da eta lan-baldintzak ere oso ondo daude. Horregatik guztiarengatik magisteritza ikastea erabaki nuen”, esan digu.

Pragatik etorri eta berehala, lana topatu zuen Barakaldon, El Regato ikastetxean. “Irakasle gazteenetarikoa naiz eta ia urte bi daramat bertan lan egiten. Ez nuen hain azkar beharra aurkitzea espero eta horregatik buruan nituen beste proiektu batzuk bertan behera utzi behar izan nituen. Baina, horrek ez nau kezkatzen, Barakaldon oso pozik nago-eta”.

Bakarrik bizi izatetik, gurasoen etxera bizi izatera. Gogorra izan zen itzulera?

Tira, bai, baina etxean inon baino hobeto tratatzen zaituzte eta nik ez daukat kezarik (kar, kar).

Atzerrian hain gustura egon zarenez, kanpora berriro joateko asmorik baduzu?

Auskalo! Pragatik etorri nintzenean, Australiara joateko gogoia nuen, baina azkenean, laster topatu nuen lana eta ezin izan nuen ezer antolatu. Barregarria da, lagun batzuk nora eta Australiara joan direlako, eta nik bizi nahi nuen esperientzia dabilta bizitzen. Agian egunen batean bat egingo dut eurekin (kar, kar). Ez dakit...



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakasguztazako Ikastetxea

Urtzagalekalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Ekainak 8 (18:30tik aurrera)

ZIENTZIAK BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOIA

- Mekanizazioko teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)


ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetakoko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmen eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Gure tailerrak eta laborategiak ezagutzera etorri



Iaz, 600 lagunek baino gehiagok topatu zuten lana EGAZen bidez

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuak, EGAZ Txorierri, 608 pertsonari lagundu zien lana topatzen, 2016an; aurreko urtean baino % 37 lagun gehiagori. Pertsona horietatik, 549k besteren konturako lana topatu zuten, eta 59k beren lana sortu zuten. EGAZ Txorierri hautaketa-prozesuetan egindako bitartekaritza lanari esker, sinatutako kontratuen % 13 mugagabeak eta lanaldi osokoak izan ziren; eta % 1, mugagabeak eta lanaldi partzialekoak.

Nabarmendu beharra dago urtearen amaieran eskualdeko langabezia-tasa % 8,68koa izan zela. 2015. urtearen amaierakoarekin alderatzen bada, hura 1,17 puntu baxuagoa izan zen. Are gehiago, Bizkaiko eta Euskal Herriko langabezia-tasekin konparatuta, Txorierriko datuak hobek dira oraindik, 2015eko abenduan Bizkaiko langabezia-tasa % 14,14koa izan zelako; eta Euskal Herrikoa, % 13,08koa.

Hautagai bila EGAZ Txorierri jo zuten enpresek batez ere sektore hauei lotutako profilak eskatu zituzten: industria eta

mekanika (% 15,24), merkataritza (% 13,90), administrazioa (% 11,89) eta gizarte-zerbitzuak (% 11,23). Enpresak sektore hauetakoak izan ziren: manufaktura-industria (% 21,52), adar profesional eta zientifikoa (% 21,39), merkataritza (% 13,37) eta ostalaritza (% 10,43).

Guztira 298 enpresak (2015ean baino % 5 gehiagok) jo zuten EGAZ Txorierri bitartekaritza-zerbitzu bila, eta zerbitzuak 1.702 lanpostu hautatzeko prozesuetan parte hartu zuen (% 21 gehiago). Enpresa gehienak (202) Txorierri daude eta egin-

549 txorierritarrek besteren konturako lana topatu zuten, eta 59k beren lana sortu zuten

2015eko amaieran eskualdeko langabezia-tasa % 8,68koa izan zen, aurreko urtean baino 1,17 puntu gutxiagokoa

EGAZ Txorierri 298 enpresak jo zuten bitartekaritza-zerbitzu bila



dako eskaintzetatik erdiak Txorierri ber-
tan lan egiteko izan ziren. Txorierri 2.300
enpresa baino gehiago daude, industrial-
deetan eta Bizkaiko Zientzia eta Teknolo-
gia Parkean kokatuta daudenak. EGAZ
Txorierri hainbat programatan aritu da
lankidetzan enplegua sustatzeko, hala no-
la Global Training nazioartekotzeko be-
kak, Lehen Aukera kontrataziorako lagun-
tzak (Eusko Jaurlaritza) eta Eskualdeko En-
plegurako eta Enpresak sortzeko Plana.

Autoenplegua

Bestetik, Txorierriko Zerbitzuen Man-
komunitateko Enplegu eta Sustapen Eko-
nomikoko Zerbitzuak 40 enpresa berri
sortzen lagundu zuen, eta enpresa horiek
59 lanpostu sortu dituzte gaur egun arte.
Proiektu horietan 1.394.380 euroko inber-
tsioa egin zen, eta laguntza publikoei es-
ker beste 953.350 euro lortu ziren. Lagun-
tzak Eusko Jaurlaritzatik, Bizkaiko Foru Al-
dunditik eta Europako Gizarte Funtsatik
etorri ziren.

Gainera, EGAZ Txorierriko autoenple-
gurako sailak doako aholkularitza ematen
du negozio-planak egiteko, eta oinarritzko
enpresa-kudeaketarako prestakuntza-
ikastaroak ere eskaintzen ditu, horiek egi-
tea nahitaezkoa baita Bizkaiko Foru Al-

dundiaren ekintzailtzarako laguntzak ja-
sotzeko. Eskualdean enpresa-proiektu be-
rriak sortzen laguntzea eta ekintzaileei
orientabidea ematea EGAZ Txorierriren
lehentasunak dira. Zerbitzuak berak egin-
dako estatistiken arabera, eskualdeko
ekintzaile gehienak 35 urtetik 45 urtera
bitarteko gizonak dira eta erdi- edo goi-
mailako ikasketak dituzte. Emakume ekin-
tzaileak ere 36 urtetik eta 45 urtera bitar-
tekoak dira, eta erdi- edo goi-mailako
ikasketak dituzte.

EGAZ Txorierri eskualdean enplegua
eta lan-munduan txertatzea sustatzea du
helburu. Horretarako, hainbat egitasmo
ipini du martxan, hala nola eskualdeko
enplegu-planak, Hazilan programa (gaita-
sun pertsonal eta profesionalen garapena
lantzen du) eta Ezagutu Aukeratzeko pro-
grama (enpresa gazteei hurbildu eta ikas-
ketak aukeratzeko laguntzen die). Era bere-
an, zenbait programatan dabil lankide-
tzan, esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren
Global Training programan, eta Txorie-
rriko Udalek lan-munduan txertatzeko eta
enplegua sustatzeko egiten dituzten jar-
dueretan ere hartzen du parte.

Informazio gehiago:
www.txorierri.eu

Konpromisoa gazteen prestakuntzarekin

Txorierriko Zerbitzuen Manko-
munitateak konpromiso sendoa du
gazteen prestakuntzarekin eta
haien laneratzearekin. Hala jaso da
Txorierriko Enplegu eta Gazteria
Sailaren 2017-2020 Jarduera
Planean, prestakuntzarako eta
enplegua sustatzeko hainbat pro-
grama biltzen dituena.

Programa horien artean,
“Ezagutu Aukeratzeko” egitasmoa
da aipagarria. Horrek hezkuntza eta
lan arloko orientabidea eskaintzen
die DBHko bigarren zikloko eta
Batxilergoko ikasleei, eta lan mun-
dura hurbiltzen ditu. Bestetik, “Eza-
gutu Kontratatzeko” enplegu-azoka
enpresen, prestakuntza-zentroen
eta erakunde publikoen topagunea
da, eta gazteei lan etorkizunerako
aholkuak ematea du helburu.

Ekintzailtzarekiko sentsibiliza-
zioa eta motibazioa dira “Pentsatzen
dut; beraz, ekiten dut” programaren
oinarriak. Eta ildo beretik, “Start
Innova. Inoiz ez da berandu ekite-
ko” programak ekintzailtza susta-
tzen du Batxilergoko eta prestakun-
tza zikloetako 16 urtetik 18urtera
bitarteko gazteen artean.

Jarduera Planak hauek ere bil-
tzen ditu: “Ahal dut” gaitasunak lan-
tzeko tailerrak; “Sarbia” beka, 18
urtetik 25 urtera bitarteko gazteen-
tzat; eta “Zabaldu mundura” nazio-
arteko beka, langabezia dauden
gazteentzat. Gainera, komunikazio-
aren garrantzia azpimarratzen du,
gazteek jakin dezaten zer zerbitzu
eskaintzen dituen Egaz Txorierri.



Derio, Euskal Herriko berbalagunen topagunea

Euskal Herri osotik etorritako berbalagunak eta mintzala-
gunak Derion batuko dira ekainaren 3an, han euren jai
handia egingo dalako aurten: Mintza Eguna. Aukera ezin
hobea, egitasmoan dabilzan beste herrialdeetako lagu-
nak ezagutu eta esperientziak partekatzeko. Eta euskaraz
gozatu eta berba egiteko, noski.



t: Itxaso Marina Ondarroa

Xabier Andrés zamudioztarra da Derion azalduko diran berbalagunetarikoa. Bost urte daroaz Txorierriko Berbalagun egitasmoan eta batez be eskualde mailan antolatzen diran ekintzetan hartzen dau parte. "Euskaltegian ikasitako euskerea bizkortzeko emon neban izena; eta horrek, apurka-apurka, Txorierriko lagun barriakaz alkartzeko aukerea emon eustan". Ez da lehenengo aldia Mintza Egunagaz bat egiten dauana. "Bereziki orain dala lau urte Elgoibarren ospatu zana daukat gogoan. "Hango urigune eta alde zaharreko kaleek harritu egin ninduen. Baita bisita kultural horren osteko bazkariak, lagunartean oso ondo pasatu nebalako". Deriora eta Txorierrira etorriko diranak be bertotik hain aho-zapore onagaz alde egitea gustatuko litzakio. "Gure eskualdea eta Derio ezagutu dagiezan, eta batez be orain dala gitxi zabaldu dan Baserri Antzokia, Txorierriko nortasuna eta euskalgintza bultzatzeko baliabide egokia dala-ko".

Mintzalagun, Solaslagun, Mintzakide zein Berbalagun izenpean, Euskal Herri osoan 6.000 lagunetik gora batzen dira astero, mintzapraktika egiteko eta euskararen erabileran eragiteko. Xabierren ustez, jai eguna izateaz gainera, Mintza Eguna horreen esfortzua eskertzeko abagunea be izan beharko litzateke. "Euskera ikasi eta ha beren egunerokoan sartzea erabagi dabenen lan gogorra aintzat hartu behar da. Era berean, lan horretan musu-

Berbalagun bezalako ekimenetan, Euskal Herri osoan 6.000 lagunetik gora batzen dira astero

truk laguntzen deutseen euskaldun zaharrek be merezi dabe esker ona".

Mintza Eguna Derion egitea arrazoi bigaitik aukeratu da. "Alde batetik, Berbalagun egitasmoa Txorierrin mailan Tximintx bertoko euskara alkarteak bultzatu ebalako; eta, bestetik, berbalagun talde gehienak Derion dagozalako", esan deusku Itsasne Zubiri Txorierriko Berbalaguneko arduradunak. Beraz, anfitrioiak izanda, buru-belarri dabilz Tximintxekoak azken ikutuak emoten, eguna biribil ateratzen. "Altzora, Lagatzu eta Zorritzketan euskara alkarteetako kideak be ibili dira antolatze lanetan laguntzen, baita berbalagun batzuk be. Azken baten, egitasmoa oso lotuta dago euskara alkartei eta horreetako kide batzuk berbalagunak be badira". Ekintzak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunidadearen laguntza be jaso dau.

Euskerea kalera

Eta eguna biribil aterako da, duda barik, Derion ekitaldi oso erakargarriak egongo diralako goizetik arratsaldera arte. Halan, goizeko 11etan ongi etorria egingo deutsee Euskal Herri osotik etorri-

tako berbalagunei, eta hamaiketako be eskeiniko jake. Ostean, eguerdiko 12etan, gura dauanak Bilboko hilerria ezagutzeko txangoan hartu ahalko dau parte. Han XX. mendeko gertaera historikorik garrantzitsuentariko batzuk ekarriko dabez gogora. Beste aukera bat bertso-trikidantza-poteoan parte hartzea izango da. Ordu berean egingo da eta horretan Arkaitz Estiballes eta Ibon Ajuria bertsolariak arituko dira, Bertoko alkarteko trikitalariakaz batera. "Ekintza honek badauka bere garrantzia, euskerea kalera aterako dogulako. Izan be, Derio nahiko herri erdalduna da eta lagun talde handi bat herriko kaleetatik euskeraz egiten ibiltea, ba, garrantzitsua da. Gainera, ondo pasetako aukerea be emongo deusku, bertsoak entzun eta dantzan egingo dogulako".

Kalejiran eguerdiko ordu biak arte jarraituko dabe. Ordu horretan, Txorierriko Baserri Antzokira abiauko dira, bazkaria han izango dalako. Bidetik esperientziak eta partekatuko ahalko dabez. Berbalaguneko arduradunaren eretziz, bete-betean asmatu da bazkaria Baserri Antzokian egiten. "Leku aproposa da hain bazkari

Xabier: "Euskera euren egunerokoan sartzea erabagi dabenen lan gogorra aintzat hartu behar da"

Konekta zaitez gurekin!

aikor
Euskal Herriko Aldizkaria

f Facebook:
aikoraldizkaria

t Twitter:
@Aikortxorierrin

Instagram:
aikor.aldizkaria

Webgunea:
www.aikor.eus





erraldoia egiteko. Herrian bertan eginez gero, karpa bat alokatu beharko geunkean; eta eszenatoki bat, Taberna Ibiltariaren saiorako. Baseri Antzokiak horreek biak eskaintzen deuskuz, eta oso akustika ona be badauka. Gainera, Derion dagoan arren, Txorierrri osoko Baseri Antzokia da eta gu Txorierrriko berbalagunak gara". Beraz, naturala izan da bazkaria han antolatzea. Ederto bazkaldu ostean, esker emote ekitaldia egongo da. "Sari bat emoten da beti. Igaz guri emon euskuen Atarrabian". Ikusiko da nori tokaten jakon aurtan.

Alkarlanean

Taberna Ibiltariak bere kantuakaz girtuko dau bazkalostea. "Talde bakoitxak abesti

bat aukeratu eta eszenatokira igongo dau kantetan. Espero daigun guztiak animatea, nafarrak eta gipuzkoarrak be bai!". Kantutegia www.mintzalaguna.eus webgunean dago eskuragarri.

Mintza Egunak Txorierrri egingo deuston ekarpenez galdetu deustagu Itsasneri. "Batez be adierazoko dogu Txorierrri euskalduna be badala. Guk be badogula gure gunea euskeraz egiteko". Halan, Berbalagun egitasmoak euskaldun barriei euskeraz egiteko emoten deustan aukera paregabea azpimarratu deusku, eta Txorierrriko euskaltegi biek egiten daben lana. "Azken urteotan alkarlanean gabilz horreekaz, euskerea kalera aterateko. Era berean, ezin dogu ahaztu bai Berbalagun egitasmotik, bai euskera alkarleetatik egiten dogun lana". Bere esanetan, Berbalagun egitasmoak ziurtasuna emoten deuston ikasten dabilanari edo euskeraz egin gura

dauanari. Gainera, Mintza Egunak Euskal Herriko beste mintzalagun eta berbalagun batzukaz ipiniko ditu harremanetan. "Eta ondo pasatuko dabe. Izan be, euskeraz ondo pasatea oso inportantea da, ez daitela izan beti hain estresagarria".

Esan moduan, Mintza Eguna mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen dabenen jaia da. Pablo Cormenzana Topaguneko kideak azaldu deuskuz haren helburuak. "Gure herri edo eskualdeko lagunakaz dogun harremanetik harago, urtean behin egun pasa ederra egiteko antolatzen da. Komunitade handi bateko kideak garala sentiduteko, beste herri batzuetako mintzalagunakaz harreman barriak egiteko, eta mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen ez daben euskaldunak erakarteko".

Erabileran eragin

Mintza Eguna 2006. urtean, Iruñean antolatu zan lehengo aldiz, ikasturteari amaiera atsegina emoteko. Hamaika urteren ostean, urteko hitzordu esanguratsua bihurtu da. Jaiaren hazia mintzalagun egitasmoak dira. "Donostiako Bagera alkarleetatik lehen mintzalagun taldeak ipini ebazan martxan 1993. urtean, eta ordutik hona milaka izan dira euskeraz bizi eta aritzeko erabagia hartu daben euskaldunak, Euskal Herri osoan zabaldutako egitasmoetan". Mintzapraktika egitasmoek euskeraz aritzeko ohiturarik ez daukienak ohitura daukienakaz alkaritzen dabez, erabileran eragiteko, eta hizketarako konfiantza



Itsasne: "Adierazoko dogu Txorierra be badala euskalduna. Guk be badogula gure gunea euskeraz egiteko"

eta gune barriak eskainteko. "Batzuek euren hizkuntza gaitasuna hobetzen dabe, hizketarako lotsa galtzen dabe, eta konturatu orduko badabilz euskeraz berbetan. Besteek, ordea, inguruko euskaltzaleei euskeraz bizitzen lagunduz egiten deuskie ekarpena euskerari". Egitasmoetan parte hartzeko baldintza bakarrak honeek dira: euskeraz komuniketako gai izatea, eta astean ordubetez alkartzeko konpromisoa hartzea. "Gero eta jente gehiago dabil berbalagun, solaslagun, mintzakide edo mintzalagun bihurtzen, esperientzia honen emoten dauana eskatzen dauana baino askoz handiagoa dalako". Egitasmoak funtsezko bihurtu dira euskeraren erabileran eragiteko eta hiztunen hizkun-

Pablo: "Hizkuntza bat bidelagunakaz batera ikasten bada, haren erabilera indartu egiten da"

tzagazko atxikimendua lantzeko. Halan, Euskal Herri osoan zehar herriz herri bazten dira mintzalagunak, mintzapraktika egiteko, eta harreman-sare barriak sortu eta hedatzeko. "Mintzapreতিকাক erakutsi deusku astean ordubetek askorako emoten dauala. Jente asko ordubetean euskeraz aritzeko alkartzekak euskal hiztunak ugaritu eta harreman barriak sortzen dauz. Gainera, hizkuntza bat bidelagunakaz batera ikasten bada, haren erabilera indartu egiten da". Etorkizunari begira, egitasmoak badaukiez erronkak. "Mintzalagunen ahalegina egunerokora zabaldu behar dogu, hizkuntza ohituretan eragin, eta gune barriak irabazi behar doguz euskerarako eta euskaldunontzako, euskera-

ren normalizazio prozesuko eragile aktiboak bihurtzeko. Horretarako, aldaketak egiten doguz urterik urtera eta mintzapraktika programak gero eta gehiago egokitzen dira partaideen beharrezanetara".

Txorierrin 130 berbalagun inguru dagoz, TOTOAN federazioak koordinatuta. "Ezagutza eta erabilera bultzatu behar dira. Txorierrin, askok euskeraz jakin badakie, baina ez dabe erabilten egunerokoa eta Berbalagun egitasmoa aukerarik onena da horretarako. Izan be, naturaltasun osoz alkartzek dauz jakitea eta egitea: euskeraz aritzeko erraztasuna landu gura dabenak eta erraztasun hori badaukienak alkartzek dauz, alkarrengandik ikasteko". Horren haritik, eta aurreko edizinoetan lez, aurtengo Mintza Eguna aukera ezin hobea izango da esperientziak partekatzeko, lagun barriak egin eta zaharrak agurtzeko, eta alkarrengaz egun pasa polita egiteko. "Mintza Egunaren ekarpenak horreek dira, euskaltzaleen arteko harremanak estutu eta alkarrengaz egiten gabiltzan bideak daukan garrantziak konturatzekoa".

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRO UDAL
EUSKALTEGIA



*erdu geugaz,
egizu euskeraz!*

UDAKO IKASTAROAK

uztailean eta irailean

MATRIKULA ZABALIK
(ekainaren 26a arte)

B1 B2 eta C1
prestatzeko ikastaro trinkoak
Autoikaskuntza
Mintzapraktika

Bulego orduak:
8:30-14:00
16:00-18:00



Sua biztuko dabe ostera be

a: Sondikako Udala

Aitatu moduan, igaz, jaiak amaitu ziranean, Udalak inkesta bat zabaldu eban herritarren artean, antolatutako ekitaldien ganean eukien eretxia ezagutzeko. Erantzunak eta ekarpenak jaso, eta horrek hartu dira kontuan jai-egitaraua atontzeko orduan. Adibidez, eskaeratariko bat jaiak jai-guneraino joateko zailtasunak daukiezan nagusiengana hurreratzea izan zan, eta eskaera horri erantzuna emoteko, aurten nagusientzako dantzaldia egingo da Goiri Erdikoa plazan.

Baina hori ez da izango nobedade bakarra. Halan, skate park bat egongo da skate pistan, kirol horretako zaleek praktika ahal izan daien, eta GinkanApp lehiaketea be egongo da. Lehiaketea jaietan zehar egingo da. Sondika zabaltzen udal

Ekainaren 22tik 25era jaietan ibiliko dira Sondikan. San Joan jaiak zenbait nobedade ekarriko deuskue aurten, baita aurreko urteetan herritarren aldetik erantzun ona izan dabezan ekintzak be. Jai-egitaraua aurreratu deuskue Udaletik.

aplikazioaren bidez galdera bat botako da egunero, eta txapelketan parte hartu gura daberen sondikohtarrek erantzun egin beharko dabe.

Sondikako jaietako ekintza nagusia San Joan gaueko su-suzien kalejirea da; eta erakargarriena be bai, zalantza barik. Kaleko antzerkia egongo da ekintza girotzeko, eta sondikohtarrek liburutegitik San Joan landaraino hurreratuko dira, bertan Gora San Joan ohiko abestia kantetako.

Igaz, sukalki txapelketea antolatu zan lehenengo aldiz zapatuan, eta Udaletik esan deuskuen moduan, data aldaketak oso harrera ona euki eban eta ekitaldia arrakastatsua izan zan. Horregaitik erabagi dabe aurten be zapatuan egitea. Gainera, talde bat ibiliko da musikeagaz ekintza girotzen. Sukalki txapelketeagaz ez ezik "Jaurti zure hirukoitza" ekitaldiagaz be asmau eben joan dan urteko jaietan. Beraz, ekitaldia aurtengo jai-egitarauaren barruan be sartu dabe.

GALAISIA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elegabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Txorierri EL, 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31

PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA



SONDIKAKO



UDALA

FAMILIA ETA
LAGUNEKAZ
GURE JAIETAZ
DISFRUTA DAIGUN!

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfn.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ALZORA
Sondikako euskara elkarte

ENDO PASA
JAIETAN!



auto-escuela **SONDIKA**

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza Iturriondo, 2 (goia)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo

Martínez Zaldueño Doktoa

Mediku estomatologoa
EHUko Odontologia irakaslea
Panky EELU Protesiak



Clínica Sondika
Dental
*1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irribarra

Protesiak inplanteen gainean
Ortodontziak
Perfortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzaldueño@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadencli



IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 686 601 871
fisiobarrondo@gmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

erregandik gertu

ABOKUCLARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALDORREKETA
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

*Nagusientzako
dantzaldi, skate park-a
eta GinkanApp
txapelketea dagoz
nobedadeen artean*

*Igaz oso harrera
ona euki eban
"jaurti zure
hirukoitza" ekintza
errepikauko dabe*



*Pintxo eta zirkuitu
solidarioei esker
batzen dan dirua
Friedreich Ataxia
alkartera zuzenduko da*

Pintxo solidarioak

Bestetik, solidaridadeak lekua eukiko dau jaietan. Proba ezbardinak, hala nola igel-tokea, txingak eta txapel-jaurtiketea, izango dauzan zirkuitu bat atonduko da, eta izena emotearen bidez lortutako dirua Friedreich Ataxia alkartera zuzenduko da. Era berean, Sondika Pintxotan lehia-ketea irabazi eban pintxo euro baten ipiniko da salgai, eta batuko dan dirua be esandako alkarre horri emongo deusie.

Aurreko urteetan bezala, Sondikako kultura eta kirol alkarreei zuzendutako bazkaria egingo da eta bazkalostea Taberna Ibiltariak girotuko dau euskal kantuakaz. Musika atalari jagokonez, aurreratu deuskue rock taldeen abestiak jotzen dauzan talde bat arituko dala.

Betiko moduan, herriko alkarteen eta taldeen inplikazioa eta ekarpenak ezinbestekoak izan dira jaiak antolatzeko. Ekintza gehienak San Joan zelaian eta horren inguruetan egingo dira. Bertan karpa handi bat ipiniko da, eguraldi txarra egin ezker, eurtirik babestu eta jaietz gozau ahal izateko.



Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

IRATXO
gazotegia

tertia personalizatua
trufak
tortak
pastelak
pastak

Mikel Zurro, 2 - 3. lonja - Sondika, 48150 - 94 641 89 12

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Antzerkigintzaren bidez hezten

t: Itxaso Marina / a: Kukuke

Beñat Bergado antzerki eskolako beteranoetarikoa da. Hamalau urte ditu eta zabaldu zenetik darama Kukuken, zazpi urte hain zuzen ere. "Antzeztea gustatzen zait eta oso pozik nago eskolan. Urte hauetan hainbat gai jorratu ditugu antzezlanetan eta orain gai serioagoak lantzen ditugu, esate baterako alkohola, matxismoa edo *bulling*-a". Bere esanetan, ez da ezaugarri berezirik eduki behar eszenatokira igotzeko. "Edonork egin dezake". Antzerki eskolan ibiltzea lotsa kentzeko baliagarria dela esan digu, eta imajinarioa lantzeko. "Horregatik animatuko nituzke gazte guztiak Kukuken izena ematera". Orain arte antzeztutako pertsonaien artean gogokoena aukeratzeko

Eskola erreferente bihurtu da Derion zein Txorierrin

eskatu diogu, eta aukeratu ezin duela erantzun digu, guzti-guztiak dituela gogoko. Antzerkigintza hobbytzat du, eta Derioko antzerki eskolan luze ematea espero du.

Urko Marinak, berriz, argi dauka zein den gehien gustatu zaion papera: *Olenzero* antzezlanean egindakoa. Egia esan, ikuskizun bitan baino ez du parte hartu, eskolan aurtengo ikasturtean hasi delako. Zazpi urte ditu eta izugarri gustatzen zaio mozorrotu eta hainbat pertsonaia antzeztea. "Oso ondo pasatzen dugu. Jolastu egiten dugu eta gure burua grabatu ere egiten dugu, gero pantaila handian ikusteko, eta txarto dagoena zuzentzeko. Batzuetan barregura ematen digu".

Olatz Urutxurtu Urkoren ama da eta aipatu digu eskertzekoa dela Txorierrin halako jarduera bat egin ahal izatea. "Izan ere, kirola edo dantza ez bada, aukera gutxi daukagu bertan". Bere esanetan, Urko izaera zabaleko mutikoa izan da beti, lotsarik ez duena eta besteekin komunikatzeko arazorik ere ez duena. Bere sal-

Tximintx Derioko euskara elkarteak Kukuke antzerki eskola sortu zuen 2009-2010 ikasturtean, umeak antzerkigintzaren bidez balioak lantzea helburu zuela. Euskaraz eta modu ludikoan, atseginez. Orduetik hona 60 umetik gora pasatu dira Kukuketik. Horietako bik, eta beren amek, euren esperientzia kontatu digute.



tsan dago mozorrotu eta eszenatokira igotzen denean. Beraz, Kukukeri esker aurrera eraman dezake bere zaletasun handienetarikoa bat. Besteak dantza eta musika dira. Olatzek zalantza barik aholkatuko zenieke gainontzeko gurasoei seme-alabak antzerki eskolara eroatera. "Balioak lantzen dituzte, eta euskaraz".

Helburu pedagogikoa

Iritzi berekoa da Beñaten ama, Elena Fernandez. "Are gehiago, nire ustez, antzerkigintza irakaskuntza arautuaren barruan egon beharko litzateke. Beñatentzat lagungarria izan da gorputzezko komunikazioa zein hitzezko komunikazioa hobetzeko, testuak ulertzeko, beste pertsona batzuekin harremanak izateko...". Era berean, hasiera-hasieratik gustatu zitzaion Kukuken azaldutako metodologia eta lan egiteko era. "Helburua ez delako seme-alabek ikasturte amaieran antzezlana bat egitea eta guk txalotzea; helburu pedagogikoa da". Beñatek urterik urte eman du izena eskolan, "berak nahi

izan duelako. Semea oso pozik dago; eta ni ere bai".

Kukuke antzerki eskola ilusio handiz sortu eta mamitzen joan da, eta gaur egun erreferente bihurtu da Derion zein Txorierrin. Urtero emanaldi bi eskaintzen dituzte, bata Derion bertan, eta bestea Bilboko antzerki jardunaldietan. Hurrengo ekainaren 13an, 18:00etan, eskainiko dute Baserri Antzokian. Etorkizunari begira badituzte hiru erronka: hazten jarraitzea, erreferente izaten segitzea eta ikaslearen adin-tartea zabaltzea.

Izena ematea

-Aurrematrikula:

Ekainaren 5etik 16ra.

-Matrikula:

Irailaren 11tik 22ra.

-Adina:

Lau urtetik 16 urtera arte, talde bitan banatuta.

Koadrilen txapelketea, aurtengo n

Pazko jaiak ekainaren 2tik 5era ospatuko dabez Zamudion. Aurreko urteetan moduan, Eguraldi Ona jai-batzordeak jai herrikoiak antolatu dauz eta adin-tarte guztietako zamudioztarrek eukiko dabe zer egin eta zertaz disfrutau. Halan, betiko ekitaldiak mantendu dabez, baina nobedadeak be egongo dira.



Def Con Dos taldea.

a: Zamudioko Udala

Itziar Landeta kultura zinegotziak eta jai-batzordeko kideak azaldu deuskun moduan, aurtengo nobedadeen artean koadrilen txapelketea da aitagarria. "Helburua da herriko koadrilek antolatzen diran ekintza ezbardinetan parte hartu daiea. Parte-hartzea zelan izan dan balorauko da eta horren arabera saria jasoko dabe". Orotara hiru sari emongo dira: 150 euro, 120 euro eta 100 euro.

Txupinazoa arratsaldeko 6etan botako dabe. Kalejirea eta umeentzako diskofestea egongo da eta txanpinoiak eskinioko dira Kultura Etxeko patioan. Kontzer-



*Koadrilek ekitaldi
ezbardinetan parte
hartzea bultzatu
gura dabe
antolatzailleek*

*Def Con Dos,
Etxaiakeroak,
Hesian, Itziarren
semeak eta Oxabi
taldeek joko dabe*

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

obedaderik nabarmena

tu-sailari Def Con Dos eta Etsaiakeroak taldeek emongo deusie hasierea. Gaua Dj Markelinen eskutik luzatuko da.

Zapatua egun handia izango da Zamudion. Sukalki txapelketea ohikoa da Zamudion eta horrezaz ganera, tortilla txapelketea egingo da lehenengo aldiz, goizean. Era berean, herriko baseritarrek ekoiztutako produktuen azokea ipiniko da eta ardiak mutiltzeko erakustaldia eskeiniko da Kultura Etxeko patioan. Umeentzako jolasak be egongo dira eta zaldi gainean ibilteko aukerea eukiko dabe. Arratsaldean, trial quad erakustaldia egingo da kanposantu ondoko zelaian, eta Hiru bat dantza taldeak dantzen agerraldia eskiniko dau Kultura Etxean. Arratsaldeko 8etatik aurrera Zamudioko Kamara Korala arituko da eleizan, abesbatza honeekaz batera: Otxote Bilbao Argia eta Jose Mari Arregi abesbatza. Hesian, Itziarren semeak eta Oxabi taldeak gaueko 11tatik aurrera igongo dabe eszenatoki nagusira.

Idea barrien bila

Domekan, besteak beste, eskupeleta partiduak egongo dira frontoian, eta umeentzako jolas-parkea ipiniko da plazan. Xabi Aburruzaga trikitilariak kontzertua emongo dau arratsaldeko 7etan, plazan. Pazko jaiak astelehenean amaituko dira. Egun horretarako, kopaua eta karta txapelketea antolatu dira.

Ume, gazte zein nagusiei zuzendutako ekitaldiak egongo dira, beraz. "Inportanteena da jentek jaietan ondo pasatzea. Ganera, eskertzekoa da herriko alkarteen lana, guztiek era baten edo bestean parte hartzen dabelako jaietan. Eta ekintzak proposatu eta antolatu be egingen dabez". Horren haritik, Landetak deia luzatu deutse zamudioztar guztiei, jai-batzordean parte hartu daien eta jaiak idea eta proposamen barriakaz aberastu daiezan.

*Xabi Aburruzaga
trikitilariak
kontzertua
eskiniko dau
domekan*

*Besteak beste,
tortilla txapelketea,
nekazaritza azokea,
ardiak mutiltzea eta
trial quad-a egongo dira*



hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

**ZAMUDIOKO
BATZOKIA**

Gosariak
Eguneko menuak
Plater konbinatuak

Arbolantxa, 5
94 474 37 62



lnaki 94 455 65 08 Jabi 94 452 14 31

**Magalarte
Txakolina**

ARETXABALETAN ERDIA ETA BOTILAZETA

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Lote -1-45



Hesian taldea.



Jai-egitaraua

Ekainak 2, barikua

- 18:00: Txupinazoa eta gozoki jaurtiketea, Zamudioko plazan. Kalejirea, Bertoko eta Gazte Elai taldeakaz.
- 19:00: Umeentzako disko-festea, Kultura Etxeko patioan.
- 20:00: Txanpinoiak, Kultura Etxeko patioan.
- 23:00: Kontzertuak: Def Con Dos, Etsaiakeroak eta DJ Markelin.

Ekainak 3, zapatua.

Sukalki txapelketea

- 09:00: Sukalki eta tortilla txapelketetan izena emotea, Bidekoetxe parkean.
- 10:00: Nekazamudio azoka, Kultura Etxeko patioan.
- 11:00: Umeentzako jolasak, Bidekoetxe parkean. Zaldi gaineko paseoak.
- 12:00: Kalejirea.
- 12:00: Ardiak mutiltzeko erakustaldia, Kultura Etxeko patioan.
- 13:30: Sukalkia aurkeztea, Bidekoetxe parkean.
- 16:00: Trial Quad erakustaldia, kanposantu ondoko zelaietan.
- 18:00: Hiru bat dantza taldea, Kultura Etxean.



Xabi Aburruzaga. argazkia: Asier Bastida.

- 20:00: Sakatu elektrotxaranga, herritik zehar.
 - 20:00: Abesbatzak, eleizan: Otxote Bilbao Argia, Jose Mari Arregi abesbatza eta Zamudioko Kamara Korala.
 - 23:00: Kontzertuak: Hesian, Itziarren semeak eta Oxabi.
- ### Ekainak 4, domeka
- 10:00: Eskupelota partiduak, frontoian.
 - 11:00: Mezea.
 - 12:00: Kalejirea.

- 12:00: Umeentzako jolas-parkea, Zamudioko plazan.
 - 16:00: Umeentzako jolas-parkea, Zamudioko plazan.
 - 19:00: Xabi Aburruzaga, Zamudioko plazan.
- ### Ekainak 5, astelehena
- 12:00: Mezea. Ostein, kopaua elizpean.
 - 16:00: Karta txapelketea, Adintsuen Etxean.

Ale-ahaindegia
M^a Antonia Llodio
Txarrikeriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

RPA
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpamayoristas.com>

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragolti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA - JATETxea

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Parte hartu
gure jaietan



Zamudio
Udala

Jaiak
euskaraz bizi!



OK

OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UZTAILEAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZADLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

Susterrak Taberna



Zamarripa Enparantza, 2 944069027
48170 Zamudio

Jaietan be,
euskaraz jaldi hadi
Zamudioko herrira



LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AUKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskaraz?
hoba ez!**



TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko Ionak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan



CEMAN
CONSTRUCCIONES

César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Mobila: 605 727 375

Ugaldeguren Ind., 3
26-1. partzela, 2. nabea
48170, ZAMUDIO-Bizkaia

Etxebizitzan
azterketa teknikoak

Energia-azterketak



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatea:
Xafte-lanak
Zoruaik



944522510 - 665703312 - 652772016

GLPa: gasolina baino merkeagoa



GLPa propano eta butano gasen nahasketa da eta era likidoan gordetzen da autoan. Depositua gasolina izango balitz moduan betetzen da, azkar eta erraz. GLPa erabiliz gero, gure autoa hibridoa izango da: gasen eta gasolinaren hibridoa, hain zuzen ere. Ibilgailuak gasolina erabiltzen du martxan jartzeko, eta motorra berotzen denean, gasa erabiltzen hasten da. Erregaietako bat agortzen denean, autoak zuzenean erabiltzen du bestea.

GLPa Europa mailan oso zabaldua dago batez ere Frantzia, Alemanian eta Italian. Guztira, sistema hori erabiltzen duten 13,5 milioi auto daude munduan, eta haietako zazpi, European. GLPa munduan gehien erabiltzen den erregai alternatiboa da. GLPa bakarrik jarri ahal zaie gasolinako autoei, ez diesela erabiltzen dutenei. Bataz beste, GLPa ezartzeak 1.650 euro balio du (BEZa barne). "Horren barruan instalatzea eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren homologazioa sartzen dira. Gastua finantzatzeko aukera ere ematen dut", argitu digu Ikerrek. Inbertsio hori arintzeko, Repsolek 600 euroko bonoa ematen die GLPeke erabiltzaileei, gasolina erosteko.

GLPa Petrolioko Gas Likidotua da; batzuen iritziz, etorkizuneko erregai. Haietako bat Muji tailerreko Iker Múgica mekanikari zamudioztarra da. Tailerra aitzindaria da Txorierrin, sistema berri honen aldeko apustua egin duenetakoa baita. GLPa gasolina eta diesela baino merkeagoa da eta, gainera, askoz garbiagoa.

10 urteko eskarmentua

Iker Larrabetzun jaio zen eta 19 urte zituela, Zamudiora joan zen bizi izatera. Mekanika munduan 10 urte baino gehiagoko esperientzia dauka. Hasieran, anbulantziak konpontzen hasi zen Asuan, mekanika ziklo bat ikasten zuen bitartean. Ondoren, Bilbon egin zituen praktikak, Forden tailer batean. Geroago, beste enpresa batean urte bi eman zituen gurpilak ipintzen, eta azkenean tailer bat jarri zuen Urtuellan, bazkide birekin. Iaz utzi zuen hori eta lehengo udan bere kabuz hasi zen Derion, Inbisa industriagunean, eta Muji tailerra ireki zuen.

Ikerrek GLPren aldeko apustua egin du, horretan sinesten duelako. "Nire autoan eta amaren autoan jarri dut GLP sistema. Txorierrin bezero potentzialak ditut, hori jartzen duen bakarra neu naizelako, eta hori errentagarria izan daiteke niretzat, noski, baina horrezaz gainera, oso onuragarria, gidarientzat. Nik tailerrean dena birziklatzen dut: pneumatikoak, olioak, likidoak... Ingurumenaren aldeko apustua egiten badugu, GLPa ere bada beste urrats bat. Eta batzuetan apustua ez da oso garestia izan behar".

Nahiz eta hasierako inbertsioa txikia ez izan, epe ertainean GLPa erregairik errentagarriena da. "Hilean 240 euro gastatzen baduzu, GLPa erabiliz gero, 130 euro gastatuko duzu. Hau da, hasierako inbertsioa berreskuratuko duzu urtebetean, norberaren kilometro-kopuruaren arabera. Opel Astra bati 20 euroko erre- gaia sartu zioten eta emaitzak hauek izan ziren: 100 CVko dieselekoa 327 km egiteko gauza zen; 115 CVko gasolinakoa, 208 km; eta 140 CVko GLPkoa, 412 km".

Berdeagoa

Gainera, GLPa erregai garbiagoa da. GLPari esker, % 15 murrizten dira karbo- no dioxidoa isurtzeak eta % 95, nitrogeno oxidokoak. Gainera, GLPak ez ditu ez partikula kantzerigenorik, ez sufrerik, eta ez du berunik askatzen. Era berean, zarata gutxiago sortzen du. Horren haritik, GLPa erabiliz gero, motorrak gehiago iraungo duela aipatu beharra dago. Izan ere, erre- gaia garbiagoa denez, kalte gutxiago egi- ten die motorrei.

Iker Gas Point Center-Repsol enpresa- rekin batera dabil lanean eta GLPa gaso-

"Hilean 240 euro gastatzen baduzu gasolinan, GLPa erabiliz gero, 130 euro gastatuko duzu"

lindegi batzuetan har daiteke. Gaur egun, GLP-operadoreen Espainiako Elkartearen (AOGLP) arabera, Bizkaian zortzi gasolin- degitan har daiteke GLPa eta haietako bat Txorierrin dugu, Derion, Artebakarran. Besteak, Erandio, Sestao, Zornotza (2), Ba- rakaldo, Zierbena eta Arrigorriagan dau- de. Estatu mailan, guztira 553 gasolinde- gitan eskaintzen dute GLPa. "Eta GLPa es- kaintzen duen gasolindegi bat eskura ez baduzu, gasolindegi arrunt batean bota ahal duzu gasolina; beraz, ez zara inoiz erregairik gabe geldituko".

"GLPa da benetako etorkizuna. Desele- ko autoak kendu nahi dituzte oso kutsa- korrak direlako eta gainera, horiek meka-

GLPa munduan gehien erabiltzen den erregai alternatiboa da: guztira 13,5 milioi autok erabiltzen dute

nika-arazo pilo bat ematen dituzte epe ertainean: tutuak eta partikulen iragazkiak trabatu egiten dira eta garbitu behar dira. Eta horrek dirua ere eskatzen du; auto elektrikoak ere badabil finkatzen, baina ni- re ustez, horrek ez ditu gaur egun auto- mobilgintzaren inguruan dauden indus- tria eta lanpostuak bermatzen. Esate bate- rako, zer egingo dute ba, kulatak egiten dituzten enpresek? Gainera, auto elektri- koak gasolina gehiago erretzen du eta, ondorioz, kutsadura gehiago sortzen du".

Informazio gehiago:

688 847 633 / 94 657 23 15
iker@mujitailerrak.com

LUZATU ZURE MOTORRAREN BIZIRAUPENA **70€ -ETIK**

Olio-aldaketa eta iragazki-aldaketa %100 eko MOTUL sintetikoa (5W30 C2-C3) erabiliz.

Olio-aldaketa bakoitzarekin autoaren 24 punturen doako ikuskapena

Banaketa-uhala aldatzea **450€ -ETIK**

Disko eta pastilletan **%30**

Etorri gu ezagutzera! **OPARIA** Izakinak agortu arte

Ikusi gure sustapenak eta deskontuak. Etorri informatzera, eta opari erabilgarri bat egingo dizugu

Zure segurtasunaz arduratzen gara **DOHAIN**

Doako freno-likido aldatzea freno eta pastilla aldatetekin

PNEUMATIKOEN ALDAKETA, MARKA GUZTIAK

688 847 633
946 572 315
944 654 991
iker@mujitailerrak.com

Muji Tailerrak
Inbisa Industrialdea
Astintze kalea 6, 16-17 C.a Pabiloia
48160 Derio / Bizkaia

“Zoriontasuna kontzientzia handia



NEREA IZURIETA TORRE | yoga irakaslea

Zamudioztarrak zen meditazioa jo eban, bere burutik kontrol barik ebiltzan ideak eta pentsamentuak baretzeko. Erlaxazio-tekniketan sakontzen joan zan, eta El Salvadorren euki eban yogagaz lehen ikutua. Gaur egun irakaslea da.

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Enpresa ikasketak egin eta yoga ogibide bihurtu. Zelan izan da hori?

Kontabilidate eta auditoriari lotutako lanak egiten nebazan Bilboko enpresa baten, eta han nengoala sei hilabetetako beka bat jaso neban El Salvadorreko kooperatibei-eta aurrera egiten laguntzeko. Bertan hasi nintzan yogan, 2011n. Meditazioa eta arlo fisikoa lotzea biribila zan niretzat eta etxera bueltau nintzanean jarraitu neban eskolak hartzen eta yogan sakontzen. Lan barik nengoala –Bilboko itxi behar izan neban El Salvadorrerako joateko–, yoga irakasle izateko ikastaro ba-

“Persona bakotxarentzat estilo ezberdin bat egon daiteke”

ten emon neban izena, eta orduan buru belarri sartu nintzan han eta hemen inbestigatzen. Gaur egun beste ikastaro bat egiten nabil Exeter urian, Ingalaterran. Han hiru erretiro egin behar dira derrigorrean, eta gainontzekoa etxean bertan egin daiket.

Zure berbetan, zer da yoga?

Filosofia bat da, gure burua, gure esentzia, fazeta guztietan ezagutzen laguntzen deuskuna. Fisikoki, mentalki, fisiologikoki... Horretarako, teknikak lantzen dira, asanak (jarrerak), erlaxamendua, arnasketa... Horreek guztiek onura handiak ekarten deuskuez nor garen jakituko bidean. Gorputz fisikoaz gainera, zerbait sakonago bat be bagarala uler-tzen dogu eta halan ikasten dogu egunerokotasunean gertatzen jakuzan gauzak beste era baten onartzen.

Hatha yoga, Asthanga yoga, Vinyasa Krama... yoga mota asko dagoz. Nahaste-borrastea da batzuentzat.

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTERRERA

Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10

• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak

• BOLAPARK

Janzu Facebooken

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Arebalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

gaz bizi dot”

*“Malgutasun fisikoa
eta mentala
lantzen doguz
eta onurak,
ondorioz, asko dira”*

Bai, egia da. Yoga orain dala 5.000 urte sortu zan Indian eta gero, abiapuntu berberatik, eskola ezbardinek garatu dira. Aitatutako hiru horreek, esate baterako, guru bera daukie komunean: Krishnamacharya, yoga barriaren aitatizat hartzen dana. Bere dizipuluek behar ebena ikasi eben berarengandik, eta hiruk esandako yoga motak garatu zituen. Horrek adierazoten deusku yogak malgutasun handia daukala eta persona bakotxarentzat estilo ezbardin bat egon daitekeala. Betiere oinarria mantenduz: nor garen jakitea.

Zuk Vinyasa Krama irakasten dozu. Zelangoa da?

Gorputza mobimenduen bitartez “zabaltzen” dala ulertzen da. Beraz, gorputza osasuntsu egon eta jarrera estatikoak mantendu ahal izateko, mugiten gara. Hiru aldiz sartu eta ateraten gara asana batetik gero geldirik egoteko. Bitartean, arnaste nasaia egiten dogu, astiro...

Edonork praktikau daike?

Jakina, bere adina, egoera fisikoa... edozein dala be. Baina lesinorik badago, komenigarria da klase espezifiko bat jasotzea, lesino hori kontuan hartuta. Yogan malgutasun fisikoa eta mentala lantzen doguz eta onurak, ondorioz, asko dira.

Batez be azkar baino azkarrago bizitzen bagara...

Proiektuak



Bere lan ibilpidea yogaren inguruan egitea gustauko litxakio Nereari. Horren haritik, Santosha Euskal Herria proiektua sortu dau Garazi Oar zamudioztarragaz. “Gizarte sareen indarra aprobetxau eta yogari, pilatesari, janariari, osasunari, naturari, espiritualtasunari... lotutako gaien gaineko informazioa konpartituko doguz. Guri asko laguntzen deuskuelako. Yoga eta pilates klaseak ez ezik beste ekintza batzuk be antolatu gura doguz: mantrak abestu, meditatzeiko ibilpideak...”. Gaur egun, Humaning (Derio) eta Onura (Zarautz) zentroetan dabilz.

Eta Zarautzera hain zuzen be eroan dau bizitzak Nerea. Surf zalea izanda, bainujantzi lerro bat sortu dau ahizteagaz, Joanagaz. “Hegoamerikatik nenbilela, mauka luzeko bainujantzia eukan neska bat ikusi neban surf egiten, eta oso polita iruditzeaz gainera, pentsau neban oso erosoia izan behar zala. Eta holangoak egiten doguz. Ur epeletan eta eguzkiak gogor jotzen dauenean erabiltekoak dira, bidaietara-edo eroateko”. Bainujantziez gainera, harri naturalezko lepokoak be egiten dabez eta biak Etoile Coco izenagaz merkaturatzen dabez.

Duda barik. Asko buruko nasaitasun bila datoz. Izan be, kontzentrazioa lantzen da, modu nasai baten, eta zure burua zure arnasketan eta gorputzean ardatzen da, sentitzen zabilzanean, egunean gertatu jatzuna albo batera itxita. Besetik, mina daukagunean, edo, adibidez, ezin dogunean lorik egin, ba, pilulak hartzeko ohitura dogu, eta yogak horretan be lagundu deikegu, tresnak emoten deuskuzalako, min edo egoera horreei aurre egiteko. Hartzen dan ahalmena ikaragarria da; zure gorputza guztiz kontrolau daikezu.

Modan ipini da.

Bai, oso harrera ona euki dau. Ikasleak harritu egiten dira yogan hasten diranean. Uste dabe yoga aspergarria dala, ez dala esfortzurik egiten, baina sorpresa hartzen dabe izerdia botatzen dabenean, ez dakielako yogan indarra lantzen dala, gorputza mugitzen dala, luzatze-ariketak egiten dirala... Eta egin behar da, meditatzen denpora luzea emoten danez, gorputz osoa landu behar dalako, arazorik ez izateko.

Zoriontsuagoa zara yoga egiten dozunetik?

Beti izan naz zoriontsua, baina egia da zoriontasuna kontzientzia handiagaz bizi dozula, eta oso eskertuta zagozala.





Interneten ere, lehen hitza euskaraz

t: Gaizka Eguzkitza

Gaur egun, webgune batean sartzen garenean, azaltzen zaigun edukia, gehienetan, gure nabigatzailearen (Google Chrome, Explorer, Firefox...) hizkuntzaren arabera da. Ondorioz, nabigatzailea edo mugikorra euskaraz konfiguratuta badago, webgunea euskaraz agertuko da; bestela, berriz, erdaraz. Nabigatzailearen hizkuntza oso garrantzitsua da garrantzailerantz. Izan ere, euskarak duen presentzia txikia bada, ez dute garatzeko hizkuntzat joko. Hau da, euskaraz nabigatu ezean, webguneak garatzen dituztenek ez dute euskara kontuan hartuko, eta, beraz, ez da euskarazko edukirik izango. Are gehiago, mugikorren eta ordenagailuen sistemak ere ez dituzte euskaraz kaleratuko.

Ildo honi jarraituz, AIKOR! aldizkaria online irakurtzen dutenen % 87k gaztelaniaz dute nabigatzailea; % 6k, ingelesez; eta bakarrik % 5ek, euskaraz. Datu horiek garatzaile batek hartuko balitu, pentsatuko luke AIKOR! aldizkariak eskaintzen dituen edukierak gaztelaniaz idatzita dau-

AIKOR! aldizkariaren irakurleen % 5ek baino ez du bere nabigatzailea euskaraz

dela. Gainera, euskara baztertuko luke lan egiteko orduan, erabiltzaile gutxi badaude, ez duelako merezi haiei zuzendutako zerbitzuak eskaintzea.

Gai horren inguruan hausnarketa bultzatzeko eta euskararen erabilera Interneten areagotzeko, PuntuEUS Fundazioak, CodeSyntax enpresak, Ikastolen Elkartek eta Kontseiluak *Interneten ere, lehen hitza euskaraz* lankidetzaproiektua aurkeztu dute. Lan-taldeak sarean egin dituen neurketek diotenez, Euskal Herriko internauten % 3-5 inguruk bakarrik dauka euskara zehaztuta nabigazio-hizkuntza bezala. Kopuru hori bikoiztu egingo da euskaldunen artean (% 10 inguru), baina oso kopuru txikia da. Internauta

teknofilo eta motibatuenen artean ere, gehiengoa dira nabigazio-hizkuntza erdara daukatenak (% 70-80 bitartean).

Erabiltzaileei deia

Horregatik, nabigatzaileak eta mugikorrak euskaraz jartzeko kanpaina abiatu dute aipatutako erakundeek. Kanpaina erabiltzaileei eta webguneen arduradunei dago zuzenduta. Alde batetik, sustatzaileek erabiltzaileak gonbidatu dituzte nabigatzailea eta mugikorra euskaratzerara. Bakoitzak ahalegin txikia eginda, ekarpena egingo diogu hizkuntzaren normalizazioari. Aldaketa errazteko baliabide bi sortu dituzte: automatikoki nabigatzailea euskaratzen duen *pluginak* eta telefono mugikorra euskaratzen duen aplikazioa.

Horrez gain, haur, nerabe eta gazteei euskaraz nabigatzearen garrantzia azaltzeaz gainera, aipatutako baliabideak ezagutaraztea eta erabiltzen irakastea da helburua. Horretarako, *Interneten ere, lehen hitza euskaraz* unitate didaktikoa prestatu da. Unitate didaktiko hori Ikastolen Elkarteko ikastoletan landu dezaten bultzatuko da, eta, era berean, beste ikastetxe guztien esku jarri eta erabiltzera animatu dituzte antolatzaileek.

Bestetik, webguneen arduradunei ere euskara lehenesteko deia egin diete sustatzaileek. Hau da, haien webguneek berez lehen orria euskaraz erakutsi dezaten, hautua *cokieen* esku utzi beharrean.

Mintza Eguna 2017

Herria euskal bihurtzeko, zeren zain?

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Serafin gudaria elkarrizketatu nuela urtetxoak dira. Kontatzen zidan, Francoren tropak aurre aldetik etorri zirela, alegia, Nafarroatik Bizkairantz, eguzki aldetik mendebalderantz. Eurak, ostera, beti atzeraka. Euskara ere halaxe etorri da urte luzeetan, gibelerantz. Gero, legeari eta askoren ahaleginari esker, aurrerantz.

XXI. mende honetan, uste izan genezake euskara eta erdara guda-fronte egonkorrean ari direla borrokan, Elgetako frontean legez-edo. Baina elebitasun orekatuak nekez dirau aldatu barik, hizkuntzen artean, bata edo bestea nagusitzen da-eta.

Zeren zain herria euskal bihurtzeko? 1971n egon bagina Pardoko Miru Zaharra –Mikel Zaratek hala deitua– hil arte itxaroten, ez genuen argitaratuko EUSKALDUNTZEN metodorik, ez ALFABETA-TZENik.

Gaur, 2017an, erdaldunak dira arazo ala euskaldunok akaso? Erdaldunak hor izango ditugu beti, Sunbillan ez baditugu, Castillan. Edonola ere, guk geurea gonoraz jagoten dugu? Unibertsitateetako irakasleen euskara duina da? Euskal lerroetako neska-mutilek euskaraz dihardute? Udal abertzaleetako plenoak euskaraz dira?



Ekainaren 3an Mintza Eguna ospatu da Derion, Berbalagun eguna. Milaka dira lagun euskaldunekin bizi gura duten erdaldunak. Guk norbanakook –agintariari dagokiena lagata– erdaratik euskarako igarobidea erraztu behar diegu euskaldun berriei, agian, betiko argumentu esentzialistez baino adiskide, lankide, koadrillakide, berbalagun izanik.

Azken baten, euskararen gaurko estatusen eroso biziz, harako Mikel Zaratek idatzia gerta ez dakigun: Kontrabidean doan mercedes ederreko bikote lirainak itauntzen dio Juantxu Izkirimiriri bide gurutzean:

“–Ondo goaz hemendik Bartzelonarantz?”

–Ondo... bai. Bartzelonarantz... ez!”

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ERREKA **ONDO**
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

BIDE-GORRI

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Oilasko-bularkiak urdaiazpikoz eta gaztaiz beteak

a: lacucharacuriosa.blogspot.com.es

Osagaiak (4 laguntzat):

- 4 oilasko-bularki.
- 4 urdaiazpiko-xerra.
- 4 gaztai-xerra.
- 8 berakatz-atal.
- Kipula.
- Ezkaia.
- 100 ml ardao zuria.
- 50 ml oilasko-salda.
- Oliba orioa.
- Gatza.
- Piperbeltz baltza.

Prestateko errea:

Labea aurretik berotuko dogu, 180 gradutan. Oilasko-bularkiak albo batetik ebagiko doguz eta gatza, piperbeltza eta ezkaia botako deutseguz. Urdaiazpikoz eta gaztaiz bete eta itxiko doguz. Oilasko-bularkiak orioz igurtziko doguz eta zartagin baten gorrituko doguz, minutu bi inguru alde bietatik. Gero, labara sartuko doguz 10 minutuan. Labatik atera, aluminio-paperez estalgi eta jalkiten utziko doguz 3-4 minutuan. Bitartean, berakatzak eta kipulea sueztituko doguz. Ardaoa bota eta alkohol-usainik ez dagoanean saldea gehituko dogu. Gitxitzen itxiko dogu, harik eta saltsa lodi bat egiten dan arte. Saltsea gainetik botako deutsegu oilasko-bularkiei.



Etxeko sukaldaritza



Zainzuri-pastela

t: M. Lekerika / a: jugando con fogones.com

Osagaiak (6 laguntzat):

- Lata bat zainzuri (300 g).
- 100 g pamesano gaztai.
- 180 g urin.
- Legamia sobre bat.
- 3 arrautza.
- Oliba orioa.
- 100 ml esne.
- Gatza nahierara.
- Gurina.

Prestateko errea:

Ontzi baten urina eta legamia nahastuko doguz. Arrautzak, orioa, esnea eta gatza gehituko doguz eta osagai guztiak ondo nahastuko doguz. Zainzuriak dadotan ebagi eta nahasiari gehituko deusaguz. Labarako molde bat gurinaz igurtzi eta urineztatuko dogu. Orea moldera bota eta laban 40 minutu inguru eukiko dogu 180 gradutan. Eginda dagoanean, moldetik aterako dogu segidan.

elekma
LARRATZEREN BAT DUTEN ETXETRE DNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRE DNA ELEKTRIKO TARDIAK

Lahenergo maizak • Prestakari onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tacient etorbidea, 25-3 N • 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind. 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia katea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

TURREGOITI
JATETXEA

Lauraola etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaumegoitil.com


ASADOR FUENTENEberria
"Iru eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com



Umeekin zer irakurri?

Ana Apika

Egilea: Asun Balzola.
Itzultzailea: Bernardo Atxaga.
Argitaletxea: Destino.
Liburutegietan dago irakurgai.

Asun Balzola marrazkilari, idazlea eta itzultzailea bilbotarra izan zen, eta bere lanagatik hainbat sari irabazi zituen Estatu zein Euskal Herri mailan, hala nola Lazarillo saria eta Euskadi saria.

Beste idazle batzuekin liburu pilo bat egiteaz gainera, ilustratzaileak baditu berak egindako album batzuk. Lan horien artean, Muniaren bilduma azpimarratu nahiko nuke. Horretan Munia izeneko zazpi urteko neskatoren eta adin horretako gorabeherak azaltzen dira.

Munia eta hilargia obran kontatzen da etxean arazo "larria" izan eta gero, familia errekaraino hurbildu dela ur bila. Muniak, han, ilargi betea ikusi du zeruan eta,aldi berean, errekarako ur azalean. Bere botila-

Munia eta hilargia

txoa ilargi urez bete du, eta etxera bueltatu denean oheratu egin da. Gauerdian bisita itzela jaso du bere gelan...

Obrak misterioa, fantasia eta erralitatea uztartzen ditu, eta Muniaren istorioa nahiko sinplea iruditzen arren, gaztetxoak liburuari adi-adi egongo dira, zer gertatuko ote den. Bilduman beste obra batzuk ere badaude: *Munia eta zapata gorriak*, *Munia eta Piltrorena anderea*, *Munia eta krokodilo laranja* eta *Munia y los hallazgos*. Horiez gain, egilearen beste lan batzuk: *La cazadora de Indiana Jons*, *Ala de mosca*, *Historias de un erizo*, *Txoriburu* eta *Partido de dobles*.

Aholkua

Laster oporretan egongo gara eta denbora gehiago edukiko dugu seme-alabekin egoteko. "Bibliopiszina" izeneko zerbitzua hasi da herrietan eta hondartze-



tan eskaintzen, eta hori ez badugu eskura, liburutegiak udan ere badaude zabalik. Motxila prestatzen dugunean ezin ditugu liburuak ahaztu, ez guretat, ez gure seme-alabentzat. Helduok eredu gara, ondo gogoratu!

Garmendia ardoak
Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tél./Faxa: 94 452 00 49

Hertz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hertz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA
Aretza doktorea, 11. - 1. edk. 48011 BILBAO T: 944 416 322
Urbe Plaza, 1 48170 ZAMUDIO T: 944 521 370

OPTIKA IKUSLAN
RPS: 184/10
Arbolantza kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Azokak

Sondika

- > Alcer elkartearen aldeko artisautza azoka solidarioa. Ekainaren 3an, 11:00etan, Lagunandre elkarteak antolatua.

Erakusketak

Sondika

- > "Sondikako Udala" Pintura Lehiaketaren lanak. Ekainaren 28tik uztailaren 14ra, liburutegian.
- > Eskulanak. Maiatzaren 29tik ekainaren 16ra, Kultura Aretoa leku erakuslehoan.

Hitzaldiak

Lezama

- > Bideko segurtasuna. Ekainaren 9an, 19:00etan, Uribarri topalekuan. Zorribike taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Joseba Sarriandiaren *Inork ez du koblakaririk behar*. Ekainaren 15ean, 19:00etan, Errebaleko Bizkargi gelan.

Ikastaroak

Larrabetzu

- > Buruko zapia zelan jantzi, Bizkargi dantza taldearen eskutik. Ekainaren 4an.

Ikuskizunak

Loiu

- > Euskal Herriko leku bereziak. Ekainaren 2an, 20:00etan, Lauroetako ermitan. Lauroetako jai batzordeak antolatua.

Derio

- > Dantza erakustaldia. Ekainaren 4an, 17:30ean, kanpoko frontoian. Piperdun elkarteak antolatua.
- > *La tercera palabra*, Sutondoan elkartearen eskutik. Ekainaren 10ean eta 11n, 19:00etan, Gurea Aretoan.

Sondika

- > *No space, no time* antzezlan, antzerki tailerreko umeen eskutik. Ekainaren 2an, 19:45ean, Kultur Etxean.

Irteerak

Sondika

- > Mendi martxa Sondika. Ekainaren 25ean, 10:30ean, San Joan landan.

Lezama

- > Beintza (Nafarroa). Ekainaren 10ean, 8:30ean, eskolan. Familiei zuzenduta eta Gailur mendi taldeak antolatua. Collados del Asón (Cantabria). Ekainaren 17an, 8:00etan, plazan.

Jaiak

Txorierri

- > San Joan. Ekainaren 23an: Loiun, 20:00:etatik aurrera: jokoak, txokolatada...; Derion, 19:00etan, eskolan: txitxi-burruntzia, txokolatada, sua...; Zamudion, Bidekoetxe parkean; Lezaman, 20:00etatik aurrera, frontoi atzeko landan: ogitartekoak, musika, sua piztu...; Larrabetzu, Bizkargi eta Aiko! taldeen emanaldia.

Larrabetzu

- > San Antonio. Ekainaren 13an, Elexalden.

Zamudio

- > San Zenon. Ekainaren 23an, Galbarriatu auzoan.

Kirola

Txorierri

- > Kirolari ateak zabalik: Sondikan, ekainaren 3an, 10:30etik 13:45era, Goronda Beko eta Artebe kiroldegietan; Zamudion, ekainaren 10ean, 11:00etatik aurrera: street kirolak, flatland, skate-BMX, parkour...

Larrabetzu

- > "Mikel Artetxe" txirrundulari lasterketa. Ekainaren 3an, 11:00etatik aurrera.



Musika

Loiu

- > Ipar Alde abesbatza. Ekainaren 9an, 17:30ean, Loiuako adinekoen egoitzan.

Larrabetzu

- > Abesbatzen emanaldia. Ekainaren 3an, 20:00etan, Andra Mari elizan.
- > Musika eskolako ikasleak. Ekainaren 15ean, 19:30ean, Andra Mari elizan.
- > Domekak Hori Baien: Behi bideko Ander Xuriak. Ekainaren 18an, 18:30ean.

Txapelketak

Loiu

- > Idi probak. Bizkaiko Pisu libreko txapelketa. Ekainaren 4an, 18:00etan.
- > B.K.T. Bizkaia Kopa Trial. Ekainaren 18an, goizean, Loiu Trial taldearen eskutik.

Sondika

- > Pintura Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: ekainaren 16ra arte, Udaletxean.
- > Pintura lehiaketa eta balkoien apainketa. Sariak ematea: ekainaren 24an, 17:45tik aurrera, Udaletxean.

Derio

- > Areto-futbola. Ekainaren 2tik 4ra, kiroldegian. Pozgarri taldeak antolatua.
- > Mihiluzeko finala. Ekainaren 9an, 18:00etan, Kultur Birikan.

Zamudio

- > 10:00: San Pedroetako plater-tiroko saioa. Ekainaren 10ean, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza elkarteak antolatua.



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



Marketin

Argitalpenak



Komunikazioa

Ekitaldiak